

CJ

BIDEZKO MERKATARITZAKO KOADERNOA

Ehungintzari buruzko monografikoa

5. Alea | 2015ko Maiatza



TIRA HARITIK...

**HAUTA EZAZU
BIDEZKO MERKATARITZA**

Argitalpena: Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (www.comerciojusto.org)

Erredakzioa: Carro de Combate, Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea

Itzulpena: Mondo Agit

Argazkiak: CECJ; Creative Handicrafts; CHETNA; "Dhaka Savar Building Collapse" by rijans - Flickr: Dhaka Savar Building Collapse. Licensed under CC BY-SA 2.0 via Wikimedia Commons; SETEM/Carlos Castro eta Felipe Adeba; Taller de Solidaridad/Natalia González Mayordomo, Carlos Rodríguez Espin eta Ana Silva Romero; UN/Grant McLean, Mark Garten, Ray Witlin eta Yutaka Nagata

Maketazioa: Masgráfica

Madril, 2015eko maiatza

Lan hau Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 3.0 Unported (CC BY-NC-SA 3.0). Lizenzia batekin babestuta dago. Lizenziaren kopia bat ikusteko, zoaz <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/legalcode> webgunera.



Koaderno hau, eta kokatzen den kanpaina Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak (AECID) finantzaturako proiektu baten zati bat da. Argitalpen horren edukia horren egileen erantzukizuna izango da soilik eta ez du derrigorrez AECID-en iritzirik adieraziko.



	HARITIK TIRA EGIN JANZTEN DUZUN ARROPAREN ATZEAN ZER DAGOEN JAKITEKO	4
1	SARRERA. KOTOIAREN HISTORIAREN DESKRIBAPEN LABURRA	5
	King Cotton	6
	Espainiaren kasua	7
2	EHUNGINTZAREN MERKATU OROKORRA ETA HONEN MERKATAL DESOREKAK	9
	Espekulazioa eta subsidioak	11
	Ehungintzaren sektorea zifratan	11
	Sektorearen kontzentrazioa	12
3	EKOIZPEN-KATEA	13
	Zuntzen erauzketa	14
	Prestaketa	15
	Joskintza tailerra	15
4	LANEKO BALDINTZAK	16
	Soldata iraingarriak	16
	Esklabo-lana	17
	Ehungintza eta pobreziaren feminizazioa	18
	Haurren lana modaren sektorea	18
	Osasunean duen talka	19
	Sindikatuak zirikatzea	21
5	BIDEZKO MERKATARITZA ALTERNATIBA GISA	22
	Zertan datzate Bidezko Merlataritzaren printzipioak?	23
	Nola eragiten du Bidezko Merkataritzako produktu bat erosteak ekoizleen bitzita baldintzen hobekuntzan? Adibide praktiko bat	24
	Nola jakin daiteke produktu bat Bidezko Merkataritzakoa den?	25
	Non aurki ditzaket Bidezko Merkataritzako ehungintza produktuak?	25
	Nork ekoizten ditu Bidezko Merkataritzaren ehun-gaiak?	25
	Kotoia ekoizten duten zenbait erakunde	25
	Arropa eta ehungintzako beste gai batzuk egiten dituzten erakundeak	26
	Bidezko Merkataritzako arroparen bi esperientzia	27
	Beraiek kontatuko digute zeintzuk diren Bidezko Merkataritzaren ekarpenak	28
6	BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK	29

Haritik tira egin janzten duzun arroparen atzean zer dagoen jakiteko

Gure herrialdean, pertsona bakoitzak 437 euro inguru gastatzen du arropetan urte batean, baina ba al dugu janzten ditugun arropen buruzko informazioa...?

Marka nagusiak diseinuan eta banaketan espezializatu dira. Kostuak merkatzeko, jantzigintza azpikontratatu egiten da Hego-ekialdeko Asiako, Indiako edo Marokoko ehungintza tailerrekin, non langileek, emakumeak gehienak, jantziak josten dituzten soldata ziztrinen truke 12, 14 edo/eta 16 orduko lanaldietan zehar, segurtasun eta higie baldintza minimoak ere betetzen ez dituzten tailerretan.

Beraz, gure jantziek dituzten etiketek ematen digute hauen eraketari, jatorriari eta nola garbitzeari buruzko informazioa, baina badaude esaten ez diren gauza asko ere. Lau adibide besterik ez:

- Mundu osoko 21 milioi pertsonak lan egiten dute derrigorrezko lan baldintzetan, **esklabutza modernoak** dituen forma desberdinen bidez, mirabetza zorraz direla eta, esate baterako. Ehungintza eta nekazaritza dira esplotazio mota hau gehien ematen den sektoreak.
- **Galtza bakero batzuk ekoizteko ia 7.000 litro ur behar dira.**
- India, Uzbekistan, Txina, Bangladesh, Egipto, Tailandia et Pakistan dira **ehungintza ekoizpen katean zehar adingabeko gehien dauden** herrialdeak.
- **Heriotza eta joskintza** binomio arrunta dira ehungintza tailerrek eskaintzen dituzten baldintza negargarriak direla eta. Lau arropa fabriken egoitzak zeuden Bangladesheko Rana Plaza izeneko eraikina amildu egon zen 2013an. Ondorioz 1.130 pertsona hil eta 1.500 baino gehiago zauritu ziren.

Hori dela eta, ehungintza arruntaren zati handi baten atzean ezkutatzen diren errealitate bidegabeen haritik tira egitera eta Bidezko Merkataritza aukeratzera gonbidatzen zaitu koaderno honek. Izan ere, langileei diru-sarrera egokiak bermatzen dizkien **alternatiba** bat izateaz gain, banaka, sozialki eta inguruneari begira ere, askoz ere onura gehiago ekartzen baititu.

Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (CECJ)

Bidezko Merkataritzarekin lotutako 29 erakunde biltzen dituen plataforma da eta inportazio azken salmenta edo/eta sentsibilizazio lanak egiten ditu Espainiar estatuan. Honen lana merkataritza sistema alternatibo eta solidario hau sustatzean eta Bidezko Merkataritzaren kide diren erakundeei zerbitzua ematean datza. CECJ Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen (WFTO) barruan dago.

CECJren helburua da gizarte-errealitatea zein nazioarteko merkataritzaren arauak eraldatzea, politika publikoetan eragina izanez, gizartea sentsibilizatuz eta mobilizatuz eta Bidezko Merkataritzaren sektorea indartuz.

2015eko Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna

Argitalpen hau maiatzaren 9an ospatuko den Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna dela eta, CECJk prestatu dituen materialetako bat da. 2015 urtean ehungintzaren sektorean zentratuko gara, janzten ditugun arropen atzean ezkutatzen diren bidegabekeriaren haritik tira egitea ezinbestekoa dela uste dugulako. Gainera, gaur egun dauden beste ekoizpen modu batzuk errebindikatu nahi ditugu, bertan lan egiten duten pertsonen lan-eskubiak eta ingurugiroa errespetatzen diren moduak hain zuzen ere. ●

1. Sarrera Kotoiaren historiaren deskribapen laburra

Jantziak, beharrezkoak izan dira gizakiarentzat duela milaka urtetatik. Animalien larrua izan zen gorputza estaltzeko erabili zen lehenengo lehengaia, baina gutxika, gizakiak ehun iraunkoragoak eta erosoagoak lortzea ahalbidetu zieten material eta teknika berrieekin esperimentatzen hasi ziren. Larruei, animalien artiletik, kalamutik edo arren zetatik lortutako zuntzak gehitu zizkieten.

Hala ere, jantzigintzan izugarritzko iraultza sortu zuen zuntza kotoia izan zen. Gaur egun ere kotoia da jantzigintzaren lehengai nagusienetako bat. Kristo aurretik 443 urtean, Herodoto historialari grekoak bere Istorioetan islatuta utzi zuen landare miressgarri batzuk bazeudela. Bere itzetan “fruta beharrean artile antzerako bat dute, ardiarena baino politagoa eta hobea, indiarrek erabiltzen dutena beren jantziak ehuntzeko”¹. Kotoia ez zen landare arrunta Europan, baina Mexiko eta Pakistan bezalako toki urrunetan mendeetan zehar erabilia izan zen. Kotoiaren erabilera gutxika hedatu zen, baina arrakasta handirik gabe, izan ere lore harro horien prozesamendua oso nekeza baitzen, zuntzak hazietatik bereiztea oso zaila zelako. Zenbait mende igaro beharko ziren oraindik, gaur egun ezagutzen dugun zuntz arrunta bilakatu baino lehen.

Inflexio puntua Eli Whitney-ren asmatzaile gazte estabatuarraren eskutik iritsi zen. XVIII. mende amaieran sektorea goitik behera astindu zuen makina bati esker. Makina honek oso erraz banatzen zituen kotoiaren zuntzak, zorrotatik eta hazietatik. Whitney-ren izpiak kentzeko makinak Estatu Batu jaio berrien esklabutza kultura sustatzeko ere balio izan zuen non ehungintzaren industria biztanleria beltzaren esklabutzan oinarritu zen. Kotoia landatzen zen gune nagusietan esklabuak biztanleria osoaren %50a izatera iritsi zelarik².

Aldi berea, Ingalaterran azkar garatu zen ehungintzaren industria aurrerapen garrantzitsuei esker, iruteko ma-

@CHETNA



kinaren bertsio desberdinei esker fabrika britainiarren ekoizpen gaitasuna areagotu baitzen. Horrela bihurtu zen Ingalaterra Ipar Amerikako kotoiaren eskatzaile nagusia. Industriaren %80a esklaboek landutako kotoiarekin hornitzen zen³.

1. Herodoto. *Historias, Libro III*, 106.

2. Oyangen, Knut. Iowa State University. Department of History. *The Cotton Economy Of The Old South*. <http://rickwoten.com/CottonEconomy.html>

3. Sherwood, Marika. Institute of Historical Research. University of London. *Britain, slavery and the trade in enslaved Africans*. www.history.ac.uk/ihr/Focus/Slavery/articles/sherwood.html

King Cotton

Ameriketako Estatu Batuetako Gerra Zibilean (1861-1865) Hegoaldeko estatu esklabistak elkartzeko elementu bihurtu zen kotoia. “King Cotton”-i (Kotoiaren Eregea) esker, industria gehiago zuten eta esklabotasunaren kontra zeuden Iparraldeko estatuetatik independentzia lortuko zutela eta ez zutela behea joko uste baitzuten. Hegoaldeko estatuak guda galdu zuten, ondorioz esklabutza abolitu zelarik. Gainera kotoiaren sektorea oso kaltetuta utzi zuten zenbait izurrite ere eman ziren. Europako herrialdeak Asiako kolonietan ezarri zituzten beren esperantzak, afrikarretan batez ere, kotoiaz hornitzeko. Modu honetan, Estatu Batuetako kotoisoroen ezaugarria izan zen behartutako lanaren eskema beste kolonia batzuetan ere errepikatu zen, batez ere Mendebaldeko Afrikan.



New York hiriko Triangle Shrtwaist izeneko lantegian sutea.

Sektorearen esplotazioa ez zen kotoiaren laborantzara mugatu. Zuntzak ehunetan eta jantzietan bihurtzeaz arduratzen ziren fabriketan ere lan baldintza gogorrek jasaten zituzten langileek. Industrial Iraultzako lehen urteetan Ingalaterrako fabriketako jabeen esku-lan gogokoena haurrak ziren. Pertsona helduen produktibitate maila antzerakoa ematen baitzuten, baina askoz ere merkeago⁴. 1.788 urtean, Ingalaterrako eta Eskoziako fabriketako esku-lanaren bi laurdeneraino haurrak ziren.1788⁵. 1.833. urteraino itxaron beharko zen, 9 urtetik beherako haurrei lana egitea eta 18 urtetik beherakoei gaueko ogibideetan aritzea debekatzeko. Haurrentzat zein nagusientzat, lanaldiak 10 orduetakoak ziren eta askotan 14 orduraino iristen ziren, bizirauteko soldata ziztrinen truke. Ameriketako Estatu Batuetako ehungintza fabriketan ere, lan baldintzak oso gogorak ziren. Zenbait ezbehar gertatu behar izan ziren, herrialdeko lan eskubideen aldeko borroka sustatu zenera arte. Ezbehar horien artean aipatzekoa da New Yorkeko Triangle Shirtwaist fabrikaren 1911ko martxoaren 25ean gertatutakoa. 146 langile hil ziren, horietako 123 emakumeak zirelarik. Gehienak Europatik iritsi berritako etorkinak.

Bigarren Mundu Gerra eta gero hasi zen ehungintzaren industria britainiarraren gainbehera, neurri handi batean Indiak bertako ehunei egindako boikotak eraginda. Modu horretan, sektorea gaur egungo parametroei jarraiki eratu zen, deslokalizazioan eta herrialde pobreen azpikontratazioan oinarrituz, hain zuzen ere. Ehungintza industrietatik gelditzen zena salbatzeko, AEBk eta Europar Erkidegoak, industrializatutako beste herrialde batzuekin batera, Zuntz anitzen Hitzarmena sinatu zuten 1974 urtean, honen bidez, garapen bidean zeuden herrialdeek, herrialde garatuera inportatzeko gehieneko kuota ezarri ziren. Hitzarmen hori Txina bezalako herrialdeetan sortutako industrien lehiakortasunaren kontra egiteko helburuarekin sortu zen, baina tokiko industriak babestu beharrean Hitzarmenean zeuden beste herrialde batzuetara eraman zituen erabaki honek. Sri Lanka, Filipinak, Tailandia, Indonesia edo Bangladesh bezalako herrialdeetara. Azken hau munduko ehungintzaren bigarren esportatzaile bihurtu da gaur egun, baina sektoreko lan baldintza txarrenak dituen ere bada. Bangladesh-eko industria Hitzarmen honi esker garatu zen.

90eko hamarkadan, Zuntz aniztun Hitzarmena indarrean zegoela, sektorean behin behineko eraldaketa bat eman zen. Iparraldeko herrialdeetako lan desregulazioa, merkataritzaren liberazioa, finantzak mundu mai-

4. Galbi, Douglas A. Centre for History and Economics, King's College, Cambridge. *Child Labour and the Division of Labour in the Early English Cotton Mills*.

5. Ibidem.

2013 urtean, modak Espainiako BPOren %2,7a suposatu zuen

lan eta itsaso bidezko garraioaren kostuen merkatzeari esker produkzioaren deslokalizazio prozesu garrantzitsua eman zen eta ekonomiaren sektore guztietan gertatu den arren, bereziki nabari da ehungintzan.

Joera hau areagotu egin zen 2005 urtean, sektorearen liberalizazioa amaitu zenean, Zuntz aniztun Hitzarmena iraungitakoan hain zuzen ere. 1995 urtean, zenbait aldaketa jasan ondoren, izena aldatu zitzaion hitzarmenari eta Ehungintzari eta Jantziei buruzko (ATV) Hitzarmena izatera pasatu zen. Honekin inportazio kuotak amaitu ziren, Txinak murriztapenak izan zituen arren AEBra eta Europara egiten zituen esportazioen hazkuntzan⁶. Orduetik, ehungintza, nazioarteko merkataritzaren funtsezko merkantzia bihurtu da.

Espainiaren kasua

Espainiako industriaren hastapenak, Europako herrialde gehienetan bezala, ehungintzaren sektorearekin lotura handia izan zuen. Hamarkada askotan zehar izan zen modernizazioaren eta hazkunde ekonomikoaren motorea, bereziki Katalunian. Gaur egun, ehungintzaren garrantzia murriztu egin da estatuko ikuspegi ekonomikoari dagokionez. Hala ere, herrialdeko industria nagusien artean egoten jarraitzen du. Gauzak horrela, 2013 urtean, modak Espainiako BPOren %2,7a suposatu zuen⁷. Enpleguari dagokionez ekarpen hau handiagoa da, ikerketaren arabera lan-merkatuan dauden lanpostu aktiboaren %4,2a suposatzen baitu. Industrian, modarekin lotuta dauden langileen pisuak, guztiaren %7,6a suposatzen du, banaketari dagokionez berriz, lanpostuen %18ra iristen da.

Beharrezko joera du, hala ere. Munduko gainontzeko tokietan bezala, azken hamarkadetan Espainiako ehungintzaren eta jantzigintzaren bilakaeraren ezaugarri nagusiak deslokalizazioa, produkzioaren azpi-kontratazioa eta enpresa txikien itxiera progresiboa izan dira, gehienbat Asiako herrialdeetatik datozen ehungintza produktuen in-

portazioen hazkundera dela eta⁸. Hala ere, 2012tik aurrera, sektorean ekoizpen industrialareagotu egin dela nabaritu da Espainiako lan-kostuen murrizketaren ondorioz⁹.

Azken urteotan itxi behar izan diren enpresa gehienak enpresa txiki eta ertainak izan dira. Aldi berean, Espainian munduko ehungintza banaketaren talde garrantzitsuenetako batzuk kokatzen dira, hala nola, Inditex eta Mango. Gainera nazioartean ezagunak diren oinetako markak ere badaude, Camper, esate baterako. 2012 urtean ia 16 milioi euroko fakturazioa izan zuen Inditex Taldea, Espainiako eta munduko merkaturako enpresa nagusia izateaz gain, enpresa eredu berritzailea eta arrakastatsua ere bada, banaketa kostuak aurreztean eta *Fast Fashion* edo moda azkarra delako kontzeptuan oinarritutako eredu, hain zuzen ere. Inditex-eko ekintzaileak izan ziren jantzien errotazioa areagotzea erabaki zutenak: kontsumitzaileak jantzi jakin bihar ez dela dendan egongo jakiten badu, erosketa konpulsiborako duen tentazioa areagotu egingo du. Egoera honek jantzi linea merkeak dituzten marka eta bildumen aniztasuna elikatzen du.

Inditex-ek ere berrikuntzak ekarri zituen bere publizitate politikan: komunikabideetako eta telebistako iragarkietan inbertitzen zuen gastua, hiriguneetako toki enblematikoetan egotera bideratu zuen, publizitate onena egiten dieten erakusleho handiekin. *Arrakastaren istorioa*, toki askotan jarraitu beharreko eredutzat hartzen duten Amancio Ortega, protagonista gisa.

Kontsumoari dagokionez, pertsona bakoitzak 437 euro inguru gastatzen ditu arropatan urtero, *El sector textil y el gasto en prendas de vestir en España 2014* txostenaren arabera¹⁰. Hala ere, beste herrialde batzuetan erregistratu den batez besteko gastutik urrun gaude oraindik. Estatu baterako, Italian, biztanle bakoitzeko gastua 1.492 eurotako da, eta Estatu Batuetan, Alemanian eta Erresuma Batuan 966 euroak gaintzen dituzte¹¹.

Pertsona bakoitzak 437 euro inguru gastatzen ditu arropatan urtero

6. Ingeborg Wick (2009). *The social impact of the liberalised world market for textiles and clothing. Strategies of trade unions and women's organisations*. OBS-Workbook 62. A study commissioned by the Otto Brenner Foundation. http://www.otto-brenner-shop.de/uploads/tx_mplightshop/AH62_en_01.pdf

7. Modaes.es Ehungintzaren eta Jantzigintzaren Informazio Zentroaren (Cityc) eta Amicca erakundearen laguntzarekin. *Informe Económico del Negocio de la Moda en España 2014*.


8. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa (2007). *El Comercio Textil en España*.

9. Industria, Energia eta Turismo Ministerioa (2014) Sektorekako aurkezpenak. Ehungintza eta Joskintza.

www.minetur.gob.es/es-ES/IndicadoresyEstadisticas/Presentaciones%20sectoriales/Textil%20y%20confeccion%20C3%B3n.pdf

10. EAE Business School, 2014 negozioaren eskolak idatzitako txostena.

11. OECD (2010). *Final consumption expenditure of households, Detailed National Accounts (database)*. Dolarretatik eurotara bihurtuta 2015eko otsailaren 13ko dibisatrukearen balioen arabera kalkulatu da.

Espainiako moda enpresa nagusiak¹²**INDITEX**

Kateak: Zara, Massimo Dutti, Bershka, Stradivarius, Pull&Bear, Oysho, Zara Home
Fakturazioa 2012: 15.946 M€
Dendak: 6.009
Egoitza: A Coruña
Beste datu batzuk: Burtsan kotizatzen du

MANGO

Kateak: Mango, He by Mango, Mango Touch...
Fakturazioa 2012: 1.691 M€
Dendak: 2.600 saltoki
Egoitza: Bartzelona
Beste datu batzuk: Isak Andic-ek kontrolatua

GRUPO CORTEFIEL

Kateak: Cortefiel, Women'secret, Springfield, Pedro del Hierro
Fakturazioa 2011: 955 M€ (2012ko otsailean itxikako ekitaldia)
Dendak: 1.900 saltoki
Egoitza: Madril
Beste datu batzuk: Pai eta Permira-ren propietatea

DESIGUAL

Kateak: Desigual
Fakturazioa 2012: 700 M€
Dendak: 330 saltoki
Egoitza: Bartzelona
Beste datu batzuk: Thomas Meyer-ek kontrolatua

PEPE JEANS

Kateak: Pepe Jeans, Hackett
Fakturazioa 2012: 463 M€ (2012ko martxoan itxikako ekitaldia)
Dendak: 300 baino gehiago
Egoitza: Bartzelona
Beste datu batzuk: Parte hartzaileak, Torreal, Artá Capital eta L. Capital

TOUS

Kateak: Tous
Fakturazioa 2011: 326 M€
Dendak: 400
Egoitza: Bartzelona
Beste datu batzuk: Tous familiaren propietatea

BLANCO

Kateak: Blanco eta Blanco Accesorios
Fakturazioa 2012: 300 M€ inguru
Dendak: 240 ixte prozesua
Egoitza: Madril
Beste datu batzuk: hartzekodunen aurre-konkurtsuan

TEXTIL LONIA

Kateak: CH, Purificación García
Fakturazioa 2011: 252.45 M€
Dendak: 70 (PG) eta 100 (CH)
Egoitza: Ourense
Beste datu batzuk: Dominguez taldearen propietatea

CAMPER

Kateak: Camper, Camper Together
Fakturazioa 2012: 200 M€ baino gehiago
Dendak: 150
Egoitza: Mallorca
Beste datu batzuk: Fluxá familiaren propietatea

PUNT ROMA

Kateak: Punt Roma
Fakturazioa 2011: 200 M€ baino gehiago
Dendak: 200 baino gehiago
Egoitza: Bartzelona
Beste datu batzuk: Familiako enpresa

ADOLFO DOMÍNGUEZ

Kateak: Adolfo Domínguez, U
Fakturazioa 2012: 148,45 M€
Dendak: 695
Egoitza: Ourense
Beste datu batzuk: Burtsan kotizatzen du

MARYPAZ

Kateak: MaryPaz
Fakturazioa 2012: 176 M€
Dendak: 400 baino gehiago
Egoitza: Sevilla
Beste datu batzuk: Agueded familiaren propietatea

LIWE ESPAÑOLA

Kateak: Inside, Inside Shoes
Fakturazioa 2012: 111,1 M€
Dendak: 294
Egoitza: Murztzia
Beste datu batzuk: Burtsan kotizatzen du

SHANA

Kateak: Shana, Double Agent
Fakturazioa 2012: 100 M€
Dendak: 200 baino gehiago
Egoitza: Bartzelona
Beste datu batzuk: Julián Imaz-en propietatea

BIMBA & LOLA

Kateak: Bimba & Lola
Fakturazioa 2012: 70 M€
Dendak: 160
Egoitza: Vígo
Beste datu batzuk: Dominguez familiaren propietatea

12. Modaes.es. Modaren mapa (I): Espainian dauden moda talde nagusiak.

www.modaes.es/back-stage/20130515/el-mapa-de-la-moda-i-los-grandes-grupos-de-moda-en-espana.html

2. Ehungintzaren merkatu orokorra eta honen merkatal desorekak

Gisela Notz-en hitzetan, globalizazioa¹³ administrazio eskola estatubatuarren asmakuntza bat da. Horren arabera, “denborara egokitzen diren eta lehiakortasun global berri bat kontutan hartzen ez duten enpresak bakarrik bizirauteko dute”. Kapitalaren globalizazioaren joko horretan sartzen den enpresak bakarrik izango balu bezala bizirauteko aukera. Azken 30 urteetan, estatuz haraindiko enpresak izan dira sistema ekonomikoaren aktore protagonistak, geroz eta eragin politiko handiagoa izatea lortu dutelarik. Holding bertikal nagusiak, hau da, produkzio katearen une desberdinak kateatzen zituzten enpresa taldeak, eboluzionatzen joan dira sektore bakoitzeko jarduera errentagarrienak gauzatzera bakarrik iritsi diren arte. Gainontzekoak beste toki batzuetara bidaliz azpi-kontratazio sare garrantzitsuen bidez. Hau horrela bada ekonomia guztian, ehungintza izan da egoera hau gehien eta modu ikusgarrienean eman den sektoreetako bat. Marka ezagun askok ez dute joskintza tailer bakarra. Diseinuan eta banaketan espezializatu dira eta joskintza lana, lan-kostu oso baxuak dituzten herrialdeetan dauden azpi-kontratututako enpresei uzten zaie. Modu honetan, negoziak diru gehien ematen duen zatiarekin gelditzen dira, hau da banaketa. Produkzio katean duten esku-hartzea murrizten dute eta aldi berean, nazioartean presentzia irabazten dute ehungintzaren banaketa taldeak osatu arte. Talde hauek geroz eta nabarmenagoak dira mundu globalizatu honetako kaleetan.

Praktikan, globalizazio bezala ezagutzen duguna munduko produkzioaren antolakuntzaren eta aberastasunaren banaketaren modu berri bat da. Globalizazioak mundu mailako irisgarritasuna duten bi fenomeno biltzen ditu: produkzioaren deslokalizazioa eta estatuz haraindiko enpresen garrantziaren hazkundea. Bi prozesuen arteko elkarreragitearen ondorioz, erantzukizunen disoluzioa gertatu da ikusi dugun bezala, soldatak jaitsi egin dira mundu mailan eta enpresen boterea finkatu egin da, geroz eta nabarmenagoa den eragin politikoarekin.

Gaur egun, ehungintza da seguruenik, sistema ekonomiko kapitalistaren produkzio egitura eta merkaturatzea,



©JUN-YUTAKA NAGATA

bere globalizazio fasean, modu nabarmenean ikusten den sektorea. Kotoia eta zuntzak Hego-ekialdeko Asiako, Indiako edo Marokoko tailerretara eramaten dituzten, non langileek, emakumeak gehien bat, jantziak josten dituzten, lan, segurtasun eta higiene baldintza negargarrietan. Tailerretako jabeek nazioarteko moda marka handiei saltzen dizkie jantziak eta marka horiek Paris, Madril edo Milaneko erakusleihonetan merkaturatzen dituzte diseinu eskusibo horiek. Kate horretan lehentasuna ematen zaio askotan errentagarritasun ekonomiko altuari, gizarteare-

Marka ezagun askok ez dute joskintza tailer bakarra. Diseinuan eta banaketan espezializatu dira eta joskintza lana, lan-kostu oso baxuak dituzten herrialdeetan dauden azpi-kontratututako enpresei uzten zaie

¹³. Notz, Gisela (2006). *Género en el trabajo sindical. Globalización o la feminización del trabajo.*



© UN-GRANT MCLEAN

kin edo ingurumenarekin lotutako beste edozein kontsiderazioren aurretik.

Ehungintzaren eta oinetakoen sektoreak merkatu global bat osatu dute non enpresa multinazional gutxi batzuk, oso pilatuak eta laka diaspora bat nabarmentzen diren, hau da, garapen bidean kokatuta dauden tailerrak, eskulan merkearen abantailak aprobetxatzen dituztenak eta sektoreko multinazionaleri lotuta daudenak batzuetan konplexuak diren azpi-kontratazio sareen bidez. Produktio fasea Hegoaldeko herrialdeetan deslokalizatzen da, batez ere Hego ekialdeko Asian, non soldata baxuek markak hausten dituzten. Bangladesh-ek du ohore triste hau, hilean 50 euroko gutxieneko soldatarekin, %77ko igoera garrantzitsua izan duen arren. Igoera hau Rana Plazako eraikinaren eraisketa tamalgarriaren ondoren gertatu zen. bertan ehungintzako tailer desberdinak zeuden eta 1.130 hildako eta 1.500 zauritu baino gehiago egon ziren¹⁴.

Asiako soldaten igoeraren aurrean, industria Afrikara mugitu da, Etiopia eta Hegoafrika bezalako herrialdeetara¹⁵. Bitartean, Inditex, Gap eta H&H bezalako banaketaren eta modaren erraldoiak merkatu berriak lortzen saiatzen dira nazioarteko hedapen plan xehatuei esker.

Aipatu ditugun lan baldintza hauek, neurri handi batean, ehungintzaren industrian gertatzen diren merkatu-desoreken ondorioz gertatzen dira. Merkatu honek liberalizazio prozesu garrantzitsua jasan du azken hamarkadetan eta produktioa herrialde pobreetan deslokalizatu da. Sektoreko jarduera errentagarrienak berriz, Europako

eta AEBko multinazional handiek jarraitzen dituzte kontrolatzen. Zentzu honetan Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) honela definitzen du ehungintzaren sektorea:

“Ehungintzaren sektorea soldata baxuak dituen lan gorrira eta sektore berritzailea da aldi berean, desberdintasun hori merkatuaren zein zatiri begiratzen diogun arabera da. Goi kalitateko modaren merkatuan, industriaren ezaugarrietako batzuk teknologia modernoa, soldata onak dituzten langile eta diseinatzaileak eta malgutasun maila altua dira [...]”¹⁶.

MMA-ren txosten honen definizioak agerian uzten du ehungintzaren industria barruan dauden desberdintasun handiak. Beraz, jantzeko gaien munduko produktioaren %60a Asian aurkitzen da baina ibiltoki nagusiak Paris, New York, Milan eta Londres izaten jarraitzen dute. Hala ere, Nazioarteko Diru Funtza (NDF) edo Munduko Bankua bezalako nazioarteko erakundeek hamarkadetan zehar defendatu dute ehungintzaren sektorearen oparoaldia hau instalatzen den herrialdeetako pobrezia murrizten laguntzeko orduan. Zenbait ikerketen arabera, sektoreak pobrezia atarian bizi den pertsonen portzentajea murrizten lagundu du Kanbodian. Hala ere, herrialdeko sindikatuek diote estatistika horiek ez direla lortu eta ez dela kontutan hartu azken urteetan eman den prezioen igoera. 2008an *Phnom Penh Post* egunkariak, 30.000 emakume inguruk, inflazioa zela eta, sei hileko denbora tarte batean, fabriketan zituzten lanpostuak utzi eta burdeletan eta antzerako establezimenduetan lanean hasi zirela argitaratu zuen¹⁷.

Bestalde, Albert Sales i Campo-ek bere *Guía para vestir sin trabajo esclavo* gidaliburuan azaltzen duen moduan¹⁸, izendatzaile komun bat dago ehungintza-produkzioaren gune handiak dituzten herrialdeen artean: guztiak dute

Kotoiaren kasuan, gainera, eragile espekulatzaileen rola beste lehengai batzuetan baino nabarmenagoa da Munduko Bankuaren arabera

14. El País. internacional.elpais.com/internacional/2013/06/14/actualidad/1371225314_748245.html

15. Modaes.es www.modaes.es/entorno/20140721/etiopia-y-sudafrica-las-nuevas-bangladesh.html

16. Hildegunn Kyvik Nordås. *The Global Textile and Clothing Industry post the Agreement on Textiles and Clothing*.

17. *Phnom Penh Post* (2008). *Inflation driving women out of the factories into beer gardens*. www.phnompenhpost.com/national/inflation-driving-women-out-factories-beer-gardens

18. Sales i Campos, Albert. *Setem Catalunya* (2013). *Guía para vestir sin trabajo esclavo*.

Deslokalizazioa

KOTOIA*							
Herrialde ekoizleak		Herrialde esportatzaileak		Herrialde kontsumitzaileak		Herrialde inportatzaileak	
Txina	27,2	AEB	31	Txina	39,92	Txina	25
India	25,7	India	16	India	17,69	Bangladesh	13
AEB	10,7	Australia	8	Pakistan	9,34	Turkia	10
Pakistan	7,8	Uzbekistan	8	Turkia	4,80	Vietnam	9
Brasil	6,6	Brasil	7	Brasil	3,90	Indonesia	8

Iturria: geuk egina http://es.cottoninc.com/MonthlyEconomicLetter_ES/#3 webgunetik ateratako datuekin.

*Guztiaren araberrako portzentajea

zor oso handia banku pribatuekin eta NDF edo Munduko Bankua bezalako nazioarteko erakundeekin. Erakunde hauek esportaziora eta lehiakortasuna hobetzera bideratutako doikuntza planak inposatu dizkiete herrialde hauei. Tokiko eliteentzako oso onuragarria da hau, baina langileak dire estrategia honen galtzaile handienak.

Espekulazioa eta subsidioak

Kotoiaren kasuan, jokoan sartzen dira baita ere prezioak desorekatzen dituzten merkatu finantzarioak. Merkatu hauetan, lehengaiak orainaldian sal daitezke (gaur erosi, gaur jaso), baina orokorrean, etorkizunera edo aukera gisa merkaturatzen dira. Lehenengo kasuan, salatzaileak eta erosleak, etorkizunean merkantzia elkarri trukatzeko konpromisoa hartzen dute, baina hitzarmena zehaztu zen egunean zegoen merkatuko prezioan. Bigarren kasuan berriz, erosleak merkantzia bat erosteko eskubidea lortzen du, baina ez da erostera behartuta egongo.

Etorkizuneko merkatu hauek, espekulazio gune dira eta kontratuak ez dira ia inoiz betetzen: Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearen (FAO) arabera, kasuen %98an ez dago merkantziaren transakziorik eta kontratua iraungi egiten da edo lehenago saltzen da berriro¹⁹. Merkatu hauetan kotizatzen duten beste lehengai askorekin gertatzen den moduan, espekulatuzaileen ekintzen ondorioz ia ezinezkoa da nekazari txikientzako prezioak aurreikustea eta izango dituzten diru-sarrerak eta kostuak kalkulatzeko. Kotoiaren kasuan, gainera, eragile espekulatuzaileen rola beste lehengai batzuetan baino nabarmenagoa da Munduko Bankuaren arabera. Beste produktu batzuentzat merkatu paraleloak garatu dira

non lehengaiak zuzenean ekoizleei erosten zaizkien, kotoiaren kasuan²⁰ merkatu hauek rol garrantzitsua izaten jarraitzen dute transakzio kostu altuak direla eta²¹.

Hauetako kotoia lantzeko subsidioak gehitu behar zaizkie, batez ere Estatu Batuetan non prezio baxua mantendu dituzten urteetan. Honek eragin zuzena izan du kotoia Afrikako herrialdeetan lantzen dutenengan batez ere, FAO-ren arabera. Erakunde honek dio, mundu osoan kotoia ekoizteko laguntzak desagertzen bazirela, produktu honen prezioa %11 batean areagotuko litzakeela²².

Ehungintzaren sektorea zifratzen

Gaur egun, kotoia ekoizten duten herrialde nagusiak Txina eta India dira, eta jarraian AEB, Pakistan eta Brasil²³. Txinan, Indian eta Pakistanen, eta neurri txikiago batean Brasilen ere, uzta herrialdean bertan lantzen dute eta bertako industriak elikatzeke erabiltzen dituzte. AEBk bestalde, bere produkzio subsidiaduna esportatzen du, lehen aipatu dugun bezala, Txinara, Turkiara, Vietnamera eta Mexikora batez ere²⁴. Beste merkantzia batzuekin gertatzen den moduan, sektorean Estatu Batuetako merkataritza politiken lehiakortasun desleiala jasan du sektoreak. Esportatzaileei laguntzen baitaie gobernuak subsidiuekin, beheranzko joera duten prezioak presionatu eta modu desleialean lehiatuz.

Inportatzen duten herrialde garrantzitsuen artean, Hegoekialdeko Asiako herrialdeak aurkitzen dira, hala nola Bangladesh, Vietnam edo Indonesia. Ez dute kotoirik ekoizten, baina ehungintza industria indartsua dute.

19. FAO (2010). *Price surges in food markets. How should organized futures markets be regulated? Policy Brief*.

20. Banco Mundial. *Priorities for Sustainable Growth: A Strategy for Agriculture Development in Tajikistan. Technical Annex 2. Cotton Sector in the Global Context*.

21. Trantsakzio kostuak elkar-truke ekonomikoan dauden kostu implizituak dira. Kostu hauek aldakorrik dira herrialdearen arabera, baina beste batzuen artean, bitarteko-komisioko, garraio kostuak, burokrazia edo prezioen lurrunkortasunarekin lotutako zalanak aurkitzen dira.

22. FAO (2005). *El estado de los mercados de productos básicos agrícolas 2004*.

23. Egipto ez da ekoizleen zerrendan agertzen, baina bertako kotoia da preziatuena. Munduan kalitate onena duen kotoitzat hartzen da. Nilo ibaiaren bailaran lantzen da. Ingurune egokia baita, kotoi-bola handiagoak sortzeko. Bola horietatik normalak baino zuntz luzeagoak lortzen dira. Emaizta hari fin eta delikatua, baina iraunkorra da. Luxuzko gai gisa kontsideratu da.

24. National Cotton Council of America (2015).

ESPORTATZAILE NAGUSIAK ²⁵				INPORTATZAILE NAGUSIAK ²⁶			
Ehungintza		Jantziak		Ehungintza		Jantziak	
Txina	33,1	Txina	38	EB	24,5	EB	38,5
India	5,3	Italia	5	AEB	8,6	AEB	19,9
Alemania	5,1	Bangladesh	5	Txina	6,6	Japonia	7,7
AEB	4,7	Alemania	4	Vietnam	3,0	Kanada	2,1
Italia	4,6	Turkia	3	Japonia	3,0	Errusia	2,10

Iturria: geuk egina, LNE-k eta MMA-k emar dako 2012 urteko datuen arabera. Guztiarekiko portzentajea

Bereziki deigarria da bere dimentsioak direla eta, Txinaren kasua. Munduan kotoi gehien ekoizten duen herrialdea izateaz hain, inportatzaile nagusia ere bada. Bi erreferentzia horiekin, pentsa dezakegu bere ehungintzaren industria hornitzeko behar duen kotoi guztia. Puntu hau jarraian landuko dugu.

Merkataritzaren Mund Antolakundeak bere estatistiketan *Ehungintzaren*, amaituta edo ez dauden produktuak zeintzuetan ehunak erabiltzen diren bere osotasunean edo zati batean, eta *jantzien*, pertsonen jantzeko lehenengo taldean ez dauden ehungintza produktuen, artean desberdintzen du. Beraz, nazioarteko erakunde honen datuen arabera, 2012an 708.000 milioi dolar esportatu ziren ehungintzari dagokionez eta horietako 423.000 milioi dolar jantziei zegozkien. Termino erlatiboetan, ehungintzak munduko esportazioen %1,6a suposatzen du, %2,5a manufakturarri dagokionez, jantziak berriz, %2,4a suposatzen dute (%3,7 manufakturrei dagokiolarik). Joerari dagokionez, ehungintzaren eta jostkintzaren produkzioaren eritmoaren hazkundearen urteko batez bestekoa mundu mailan %1,2koa da, baina garapen bidean dauden herrialdeetan metatu da hazkunde hau, non urtean %2,7raino hazi den. Garapen bidean dauden Asiako herrialdeetan berriz, urtean %3,6²⁷. Txina da 2010 urtetik, ehungintza gehien esportatzen duen herrialdea, ehungintzaren merkatu osoaren %33arekin eta %38arekin jantziei dagokionez.

Azken urteotan Txinak izan duen hazkunde ekonomiko ikusgarriak eragin handia izan du jantzien nazioarteko merkaturan. Soldatak igo diren arren, Txinan produkzio zentroak egokitu egin dira mekanizazioari esker, baina kalitate gutxiagoko produkzioaren zati handi bat Hego ekialdeko Asiara eraman da. Bestalde, bizitza mailaren

hazkundeak ehungintzaren sektoreko eskaera areagotzea ondorioztatu du. Kanpotik egiten diren inportazioak etengabe eta asko handitu dira azken urteotan. Inportazio horiek hain garatuta ez dauden herrialdeetatik iristen dira, hala nola, Bangladesh, Kanbodia edo Myanmar²⁸. Beraz, industria honetako desoreka eskema berriro ere irudikatzen da, baina kasu honetan Iparralde-Hegoalde modelo klasikotik urrunduz.

Sektorearen kontzentrazioa

Bestalde, aipagarria da baita ere sektore honetako enpresen kontzentrazio eta nazioartekotasun prozesua, bereziki mendebaldeko merkatuetan. Horrela, Europako Batzordearen ikerketa baten arabera, Europa dagoen modako txikizkako sektorearen metaketaren tasa herrialdearen arabera desberdina den arren, marka nagusiek kontrolatzen duten %40 batean merkaturia mediterraneo inguruko herrialdeetan eta %80raino iristen dira Ingaltarran eta herrialde eskandinaviarretan²⁹.

Galiziako Inditex, Sueziako H&M eta AEBko Gap enpresak dira negozioaren zati handi bat hartzen dutenak. 2013an Amancio Ortega galziarrak sortutako Inditex taldeak, zeinen bereizgarri nagusia Zara den, munduko lidergoa mantendu zuen 16.724 milioi euroko negozio zifrarekin. Inditex-ek 88 herrialde desberdinetan banatutako 6.340 denda ditu. Jarraian H&M aurkitzen da 14.497 milioi euroko negozio zifra eta 3.132 dendekin. Beste arerio nagusiak, Gap-ek hain zuzen ere, 11.708 milioi lortu zuten 2013 urtean 3.450 dendek osatzen duten sareari esker³⁰. Oinetakoen eta kiroletako arropak ere sartzen dira bertan, hala nola Nike eta Adidas eta Christian Dior bezalako luxuzko markak³¹. ●

25. Lanaren Nazioarteko Erakundeak (2014). *Salarios y tiempo de trabajo en los sectores de los textiles, el vestido, el cuero y el calzado*.

www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_dialogue/---sector/documents/publication/wcms_300643.pdf

26. Munduko Merkataritza Erakundeak (2014). *Estatísticas del comercio internacional 2013*. www.wto.org/spanish/res_s/statistics/its2013_s/its13_merch_trade_product_s.pdf

27. Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa (2007). *El Comercio Textil en España*. www.portaldelcomerciodm.com/publicaciones/El%20Comercio%20Textil%20en%20Espa%F1a.pdf

28. International Trade Centre (ITC) 2011. *The Chinese Market for Clothing*.

29. Europako Batzordea (2010). *On Retail Services in the Internal Market. Accompanying document to the Report on Retail Market Monitoring: "Towards more efficient and fairer retail services in the Internal Market for 2020"*. Commission Staff Working Document.

30. Modaes.es (2014). *Inditex bate en su peor año a H&M y Gap en ventas comparables*.

www.modaes.es/empresa/20140324/inditex-bate-en-su-peor-ano-a-hm-y-gap-en-ventas-comparables.html

31. Modaes.es. *Las veinte mayores empresas de moda del mundo*. www.modaes.es/back-stage/20120419/las-20-mayores-empresas-de-moda-del-mundo.html

3. Ekoizpen-katea



© UN-YUITAKA NAGATA

Koaderno honen sarreran aipatzen genuen moduan, ehungintzaren industria da azken hamarkadetan nazioartean finkatu den deslokalizazio edo azpi-kontratazio joera hobekien irudikatzen duen sektorea. SETEM-eko Eva Kreisler-en/Arropa Garbia Kanpaina³² hitzetan, azpi-kontratazio kate hauen bidez, multinazionalak “produktua deslokalizatzeaz gain, arriskua ere deslokalizatzen dute, hau da erantzukizunak azpikontratatzeko dituzte”. Enpresak ez dira produkzio zentroen jabe eta azpikontratutako enpresek lehiakortasun gogorra izaten dute eskaerak lortzeko. Honek prezioen lehiakortasuna ekarri du eta ondorioz, giza eta ingurumen baldintzak txarrera egin dute.

Hornitzaile hauei, klausula oso gogorrak betetzea eskatzen zaie askotan. Produkzio aldakorrak, biltegiatzea eta garraioa ziurtatu behar dute, fabrikentzako geroz eta mozkin-marjina txikiagoarekin. Presio horren aurrean, fabrika txikiek beren atak itxi behar izan dituzte zentro handiagoen mesederako.


Hornitzaileek banaketa multinazional nagusien menpekotasun handiagoa dute orain eta (hauek ere kontzentratzeko joera izan dutelako), aldi berean hornidura kateko eragile gisa duten rola indartu dute³³. Beraz, multinazional gehienek hornitzaile kopurua murriztu dute, teoriarik behintzat, kostuak murrizteko helburuarekin. Hala ere, praktikan, produkzio zentro hauek tailer ilegalez eta etxean lana egiten duten pertsonen bidez diren industriaren eskaera zorrotzak bete ahal izateko. Hori dela eta, kasu askotan, batez ere Kanbodia edo Txina bezalako herrialdeetan, ekoizpen zentro legalak lan baldintzak hobetu dira, baina presio hori itzalean lan egiten duten langile informaletara pasatu da orain, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Azpi-kontratazio eta gardentasun falta honen logika ez da jostura tailerretan soilik gertatzen eta eragina du produkzio kate osoan, lehengaiak lortzetik, banaketara eta kontsumora hedatzen baita.

32. Arropa Garbia Kanpaina (AGK), kirol arroparen eta oinetakoen industriaren giza eskubideak defendatzen dituen nazioarteko sarea da. 1.989. urtetik, funtsezko eskubideen alde eta langileek beren boterea berreskuratzeko lan egiten du. Erakunde kideen artean sindikatuak eta GKE-ak daude eta perspektiba eta interes sorta anitza estaltzen dute, giza eskubideak, eragin politikoa edo pobrezia murriztapena, esate baterako. Europan 17 herrialde desberdinetan aurkitzen da eta mundu mailan 250 erakunde eta sindikatuk osatutako sare baten bidez jarduten du, jantziak ekoizten dituzten herrialdeetan. AEBn, Kanadan eta Australian giza eskubideen aldeko erakundeak dituzte. www.cleanclothes.org. Espainian SETEM da horren erakunde koordinatzailea www.ropalimpia.org

33. Ingeborg Wick (2009). *The social impact of the liberalised world market for textiles and clothing. Strategies of trade unions and women's organisations*. OBS-Workbook 62. A study commissioned by the Otto Brenner Foundation. www.otto-brenner-shop.de/uploads/tx_mplightshop/AH62_en_01.pdf

Ehungintzaren eta jantzigintzaren sektoreetako hornitzaileen katea



Iturria: Lanaren Nazioarteko Erakundea. www.oit.org/wcmstp5/groups/public/---ed_dialogue/---sector/documents/publication/wcms_300643.pdf

Zuntzen erauzketa

Tradizionalki, ehungintzaren industria, artilea, lihoa eta zeta bezalako zuntz naturalengatik hedatu zen. Hala ere, azken urteotan petroliotik ateratzen diren zuntz artifizialen erabilera hedatu da, hala nola, poliamida, poliakrila, biskosa, elastana, nailona, raiona edo poliesterra. Materia hauek mundu mailako eskaeraren erdia suposatzen dute gutxi gora behera. Baina badago gaur

egungo ehungintzaren merkatuan bere protagonismoa izaten garraiatzen duen lehengai natural bat: kotoia.

Kotoiaren laborantza intentsiboak eragin ugari ditu gizartean eta ingurumenean. Hasteko, ur asko kontsumitzen du. Gainera, produktu kimiko gehien absorbitzen dituen landareetako bat da. FEM International erakundearen arabera³⁴, kotoiak landu daitekeen munduko tokien %2,4a suposatzen du, baina intsektiziden %25a eta pestiziden



Kotoiak landu daitekeen munduko tokien %2,4a suposatzen du, baina intsektiziden %25a eta pestiziden %10 hartzen ditu

34. FEM 2005ean Kanadan sortutako gobernuz kanpoko erakundea da. Bere webgunearan arabera, munduko emakumeei independizatzen laguntzen die "gizaki, hiritar, enpresari eta beren erkidegoetako lider" gisa. Beren proiektuak emakume asko dauden enpleguetan oinarritzen dira, hala nola ehungintzaren industria, moda edo artisaizua.

Galtza bakero batzuk ekoizteko ia 7.000 litro ur behar dira, horri kotoia hazteko, zuritzeko, izan ere kotoiaren kolore naturala beixa baita

%10 hartzen ditu. Arriskuak areagotu egiten dira kotoi transgenikoaren hazkondearekin, BT³⁵ izan ere genetikoki aldatuta baitago intsektizida toxina bat sortzeko. Kotoi transgenikoak ondorioztatzen dituen talka sozialak beste OGM (genetikoki aldatutako organismoak) batzuk sortzen dituztenen antzerakoa dira. Alde batetik, nekazal produktu kimiko gehiago behar dituzte eta horietako asko kaltegarriak dira osasunarentzat³⁶. Bestalde, kotoi transgenikoak oso errentagarria da monolaborantza handientzat eta hez hainbeste ekoizle txikientzat. Hauek teknologian inbertsioak egin eta haziak garestiago erosi behar dituzte (BT haziak, hazi arruntak baino askoz ere garestiagoak dira). Nekazariak zorrak edukitzera bultzatzen die egoera honek eta beren lurretatik joan behar izaten dute³⁷.

Prestaketa

Behin zuntzak lortzean, prozesu luze bat dago oraindik, ehuna josteko prest egon arte: zuntzak prestatzea, iruketa eta ehunketa, gaseatzea eta kola kentzea, tindura, estanzazioa (batzuetan toxikoak diren koloratzaileekin), e.a. Pauso gehienak kutsagarriak dira ingurumenarentzat eta toxikoak bertan lan egiten dutenen osasunarentzat. Beraz, desmuntatzea da kotoia jaso eta hurrengo pausoa. Hondakin asko sortzen ditu eta kotoiaren hautsarekin kontaktuan egoteak arnasketa-gaixotasun larriak sor ditzake, bisionosia, esaterako. Ehunak garbitzeko detergente, leungarri eta askotan toxikoak diren bestelako

sustantzia ugari erabiltzen dira. Berdina gertatzen da ehunak zuritzearekin eta tindatzearekin. Prozesu hauek gauzatzeko ur kontsumo handia behar da eta gainera, kutsatu egiten da ur hori baldintza optimoetan egiten ez bada. FEM International erakundearen arabera, galtza bakero batzuk ekoizteko ia 7.000 litro ur behar dira, horri kotoia hazteko, zuritzeko, izan ere kotoiaren kolore naturala beixa baita, tindatzeko eta jantzi hauen marazketa ezaugarria gauzatzeko behar diren baliabide guztiak gehituz. Hori guztia, langileen osasunerako oso kaltegarriak diren eta aurrerago aztertuko dugun *sandblasting* bezalako zenbait tindura tekniketarako ez hitz egiteagatik³⁸.

Jostura tailerra

Ehungintzaren sektorean, lan-esplotazioa salbuespena beharrezkoa dela esan daiteke. Arropa Garbia Kanpainaren *Salarios Dignos* txostenaren arabera³⁹ ehungintzaren sektoreko munduko 50 konpainia nagusietako batek ere ez die soldata duinik ordaintzen langileei, beren Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) eskuliburuetan horrela zehazten duten arren. Botere globalaren egiturak bermatu du, beren jarduera diseinu, banaketa eta merkaturatze lanetara mugatzen duten enpresek produktua soldata merkeak eta sindikatuen baldintzak dauden tokietara eskatzea. Asiako Hego ekialdeko herrialdeek erakarri dituzten ehungintzaren sektoreko inbertsio gehienak, munduko legezko soldata minimoak dituzten herrialdeak baitaude bertan, Bangladesh eta Vietnam esaterako. Sagonago aztertuko ditugu hurrengo atalean. ●

Ehungintzaren sektoreko munduko 50 konpainia nagusietako batek ere ez die soldata duinik ordaintzen langileei

35. Greenpeace (2010). *¿Qué cosecha de algodón?* www.greenpeace.org/espana/es/reports/que-cosecha-de-algod-n/

36. Greenpeace-ren arabera 26 plagizida kimiko desberdin, hain zuzen ere. Horietako asko oso arriskutsuak moduan sailkatu ditu Munduko Osasun Erakundeak. Gainera, egoera txarrerantz doa denborarekin, izarriek erresistentzia irabazten dutelako eta geroz eta nekazal produktu kimiko gehiago erabili behar izaten dira.

37. *Nero's Guest* dokumentala Indiako nekazariak buruzak beste egiteari buruzkoa: www.youtube.com/watch?v=4q6m5NgrCJs

38. *Sandblasting* delakoa da galtza bakeroak marazteko eta gastatu itxura emateko gehien erabiltzen den teknika. Ehunean presio bidezko harea aplikatzean datza. Aurrerago ikusiko dugun moduan, teknika honek silikosi kasu larriak ondorioztatzen ditu langileengan. Gaixotasun hau hilkorra izan daiteke urte gutxiren buruan.

39. Setem-Arropa Garbia Kanpaina (2014). *Salarios Dignos. Nahikoa al da markek geure jantziak egiten dituzten pertsonetarako ordaintzen dieten diru soldata, beren bizia arriskuan jartzeko?*

4. Lan baldintzak



© UN-GRANT MCLEAN

Ehungintzaren industria da lan-baldintzei dagokienez jazarpen gehien jasaten dituen: globalizatutako munduko batez besteko soldata 6 eurotakoa da egunean gure arropa egiten dutenentzat, Europan soilik egunero 34.000 milioi euro mugitzen dituen sektore batean⁴⁰. Ehungintzan eta joskintzan lan egiten dutenen %80a emakumeak dira⁴¹ eta geroz eta gehiago dira Asiako hego ekialdean eta Indian bizi direnak. Herrialde hauek sektoreko inbertsioak erakartzen dituzte beren “lehiakortasun abantailarekin”: soldata baxuak, lanaldi amaigabeak eta segurtasun eta higiene baldintza negargarriak. Kanbodian, ehunka milaka langilek eskatzen dute soldata

hobetzea, Bangladeshe-en berriz, segurtasuna hobetzea aldarrikatzen dute. Egoera kritikoak bizitzen dituzten sektoreko enpresa handiek mozkin milioiunak dituzten bitartean.

Soldata iraingarriak

Azken urteotan, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) mundu erdiko ekoizpen zentroetan geroz eta gehiago ematen den fenomeno baten inguruan ohartarazi du: “langile pobreena”. Hau da, enplegua izanda ere, senitarteko bakoitza egunean dolar baten truke bizi diren pertsonak. LNE-ren arabera, munduko lana guztiaren %30a, hau da, 910 milioi langile⁴² sartzen dira definizio honetan. Sweatshop direlakoetan lan egiten dutenak adibidez (kostu baxuak direla eta multinazionalak erakartzen dituzten lakak) Beraz “soldata duinari” buruz hitz egiteko beharra ondorioztatzen da hortik. LNE-ren definizioaren arabera, soldata duina da lan egiten duen pertsonak eta bere senitartekoei pobreziatik ihes egitea ahalbidetuko diena da, ez aldi baterako baizik eta betirako.

Soldata duinei buruzko txostena⁴³ Arropa Garbia Kanpainak azpimarratzen du, 12 eta 14 orduko lanaldiak egin arren, langileen soldatak hauei pobreziatik ateratzen laguntzetik urrun daude. Kanbodiaren kasuan, gutxieneko soldata hilean 128 dolarretara⁴⁴ igo da, baina urrun dago

***Munduko batez
besteko soldata 6
eurotakoa da egunean***

40. *Salarios Dignos* txostenaren arabera.

41. *Ibidem*.

42. OIT (2012). *Global Employment Trends 2012*.

43. *Op. cit.*

44. 2014ko azaroaren erdialdean aterata: www.cleanclothes.org/ua/2014/cases/cambodia-wage-struggle

oraindik Asia Floor Wage Alliance erakundearen ustez⁴⁵ langileen beharrak estaltzeko beharrezkoak direla uste duen 283 dolarretatik. Arropa Garbia Kanpainak sektoreko enpresa nagusien jarduera erreparatzen du, horien artean Espainiakoak, eta ondorioztatu du Inditex, Mango eta Desigual enpresek soldata duina ordainduko dela bermatzen duten parametroak garatu behar dituztela eta horri buruzko informazioa argitaratu behar dutela. Lan baldintza hauek sindikatuak oso ahulak direlako edo sindikaturik ez dagoelako mantentzen dira, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Hala ere, arazo hau ez da Hegoaldean bakarrik gertatzen. Industrializatutako herrialdeek ere jasaten dute sektorearen zorrotasuna beren ekoizpen kateetan. Worker Rights Consortium erakundearen arabera⁴⁶ Estatu Batuetan, sektoreko langileen %43ak ez du zehazten den soldata minimoa jasotzen eta %71ak ez ditu egiten dituen ordu estrak kobratzen. Fair Labor Association erakundearen datuek ere kezkarriak dira (Europako ehungintza zentroak ere barne daude): hornitzaileen %58ak ez du gutxienezko ordaintzen eta %68ak ez ditu ordu estrak ordaintzen⁴⁷.

Azken urteotan, gizarteak egoera hauek salatu ditu. Hala ere, egoera hau hobetzeko saiakerak errealtatearekin talka egiten dute: globalizazioaren eraginez, modaren sektoreak beti bilatzen ditu kostu baxuenak eta ondorioz, soldata minimoak igotzen dituztenek atzerriko inbertsio horiek galtzeko arriskua izango dute. Izan ere, baldintza “abantailatsuagoak” dituzten herrialdeetara alde egingo baitute hauek. Enpresak etengabeko kontraesan batean bizi dira, merkatuaren lehiakortasunaren logikaren eta beren Gizarte Erantzukizun Korporatiboko kodeen artean. Hauek, enpresak gizartearekiko erantzule izateko egin beharko luken guztia planteatzen du, baina ez da obligazio bat legez.

Esklabo-lana

Inbertsio globalak erakartzeko soldata nahikoa baxuak diren tokietan, ehungintzaren ekintzaileen errekurtsua klandestinitatea da. Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LNE) uste du mundu osoko 21 milioi pertsonak lan egiten dutela derrigorrezko lan baldintzetan, esklabutza modernoak dituen forma desberdinen bidez, mirabetza

Globalizazioaren eraginez, modaren sektoreak beti bilatzen ditu kostu baxuenak eta ondorioz, soldata minimoak igotzen dituztenek atzerriko inbertsio horiek galtzeko arriskua izango dute

zorrak direla eta, esate baterako. Ehungintza eta nekazaritza dira esplotazio mota hau gehien ematen den sektoreak.

Argentinan adibidez, ehungintzaren industriak langileen %78ari diru beltzarekin ordaintzen dio, bertako Jantzigintzaren Industria Ganberaren arabera. Kasu gehienetan, etorkinak dira langile horiek eta gehienbat boliviarrak. Askotan, beren herrialdeetan hartzen dituzte ezagunek edo senitartekoek. Deliaren kasua izan zen. Bere testigantzak esklabotasun kasu bat deskribatzen du lan esplotazio kasu bat baino⁴⁸. Engainuen bidez eta dolarrak erraz irabazteko zinarekin kaptatu zuten eta behin Buenos Airesek, bere dokumentu guztiak kendu zizkieten eta soldatarik gabe lana egitera behartu zuten. Egunean 16 ordura arte lan eginez bidaiaren eta elikadura gastuak ordaindu ahal izateko.

Egoera oso antzerakoa bizi dute Sao Paulon, non Boliabiako immigrazioa den ehungintzaren sektorea eusten duena, marka handien tailer klandestinoei esker. Urtero, agintariek tailer mota hauek desartikulatzen dituzte eta bertan lan egiten duten pertsonak “askatzen” dituzte. Gehienbat boliviarrak edo peruarrak izaten dira.

45. Asia Floor Wage Alliance edo itzulita, Asiako soldata duin baten aldeko elkartasuna, sindikatuak, lan eta giza eskubideen aldeko erakundek eta beste elkarte batzuk osatzen dute eta Asiako langileek bizitzeko behar duten gutxienezko soldata kalkulatzeko eta exijitzeaz arduratzen da. Kideak dituzte Indian, Bangladeshen, Kanbodian, Indonesian, Sri Lankan, Tailandian, Txinan eta Hong Kong-en.

46. Worker Rights Consortium erakunde independentea da eta langileen eskubideak betetzen direla zaintzen du *sweatshop* direlakoan kontra egiteko.

47. Miller, Doug. School of Design. University of Northumbria. *Towards Sustainable Labour Costing in the Global Apparel Industry: Some evidence from UK Fashion Retail.*

48. Bere istorio osoa hemen: Colectivo Simbiosis Cultural y Colectivo Situaciones, De chuequistas y overlockas. Ehungintzako tailerren gaineko eztabaida, Tinta Limón, Buenos Aires, 2011. tintalimon.com.ar

Bestalde, Asian Indiaren kasua nabarmentzen da. Bereziki herrialdearen hegoaldean ikusten da *Sumangali* sistema. Haurren enplegurako sistema da eta honen arabera, gazteek, normalean 18 urtetik beherakoak, 3 eta 5 urte bitartean lan egiten dute ehungintza tailerretan ondoren beren ezkontsaria ordaindu ahal izateko⁴⁹. SOMO-k⁵⁰ bere Flawed Fabrics (Ehun inperfektuak) ikerketan salatu zuen moduan⁵¹ lan baldintzak hain dira gogorak, askotan 60 ordutako edo gehiagoko lanaldiekin eta askotan aprendizek ez dute mugitzeko aukerarik. Soldatak hain dira eskasak esklabotasun modernotzat hartu direla.

Ehungintza eta pobreziaren feminizazioa

Ehungintzaren sektorea intentsiboetako lanaren indarrari dagokionez eta baita emakume gehien lan egiten duen sektorea da: langileen %80a emakumeak dira, gazteak gehienbat. Hala ere, Arropa Garbia Kanpainak bere ikerketa zehazten duen moduan, “toki gehienetan gizonak baino diru gutxiago irabazten dute, baita kualifikazio berdina duten lanak eginez ere”⁵². Beraz, orokorrean emakumeek gizonak baino gutxiago kobratzen badute, %10 eta %50 artean lan berdina edo balio parekagarria egiteagatik, soldata desberdintasun hori bereziki nabarmena da jostintzaren sektorean.

Soldata diskriminazio hau dela eta, “emakumeak ondo elikatu gabe egoteko probabilitate gehiago izango dute, ez dute etxebizitza duin bat, arreta medikua eta ur gar-

Ehungintzaren sektorea intentsiboetako lanaren indarrari dagokionez eta baita emakume gehien lan egiten duen sektorea da: langileen %80a emakumeak dira, gazteak gehienbat

bia edo osasun baldintzak edukitzeko bezalako erkidego zerbitzurik edukitzeko aukera izango”⁵³. Gainera, hile amaierara iristeko lan gehiago egitera behartuta egongo dira. Oso normala da nekea, estresak sortutako lesioak eta lan-gainkarga edukitzea.

Ehungintza da beraz, globalizazioak pobreziaren feminizazioa nola ondorioztatu duenaren adibide garbia da (Notz, 2006). Munduan dauden pertsona pobreen %70a emakumeak eta neskatilak dira. Ehungintzaren kasuan, pobrezia hau langile askoren etorkin egoerarekin zuzenki lotuta dago. Emakumeak landa-guneetatik hirietara joaten dira, beren herrialde barruan edota atzerrira, beren familiak mantendu ahal izateko lana bilatzera. Enplegu horiek ez dira legezkoak izaten normalean, beraz emakume hauek ez dute babes legalik eta kexatzera auzartzen badira, deportatuko dituztenaren mehatxua egiten diete. Beren familiengandik eta erkidegotik urrun, emakume hauek, gehienak nerabeak, etxera dirua bidaltzeko beren egoera berdinean aurkitzen diren beste emakume batzuekin bizi dira.

Emakumeak *abantaila* asko suposatzen dituzte enpresentzat. Lehenik eta behin, jostintzarako eta jantzigintzarako eskulan arina dira. Askotan ez dute sindikatuen babesik eta errazagoa izaten da denbora epe laburretarako eta soldata baxuen truke kontratatzea badakitelako familiako diru-sarrera garrantzitsuena gizonarena dela. Baina ez da beti horrela izaten. Ikerketen arabera, (Notz, 2006-k Mies, 1996 aipatzen du) mundu mailan geroz eta emakume gehiago dira, neurri handiago batean, familia sostengatzeko ardura beren gain hartzen dutenak. Ekonomia terminoetan, erreproduktzio lanez gain, etxeko lanak, zaintza, produktio lanak ere egiten dituzte eta horretarako beren biziraupena antolatzeke modu sortzaileak garatzen dituzte.

Haurren lana modaren sektorean

Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, 15 urte da lan egiten hasteko gutxieneko adina eta kasu batzuetan soilik murriztu daiteke adin hori 14 urtera. Kasu honetan: “*adingabeen osasunarentzat, segurtasunarentzat edo moralarentzat kaltegarria izan daitekeen edozein enplegu edo lan, bere jatorria edo hau egiten den baldintzengatik, ezingo da 18 urte azpitik gauzatu*” (Gutxieneko

49. Ezkontsari sistema ilegal den arren Indian 60ko hamarkadatik, praktikan indarrean jarraitzen du toki askotan.

50. Enpresa Multinazionalen Ikerketarako Zentroa (SOMO) herbeheretako GKE bat da eta enpresa multinazionalak 1973tik izan duten eragina aztertzen du. SOMO (2014). Flawed Fabrics.

51. SOMO (2014). Flawed Fabrics.

52. Arropa Garbia Kanpaina (2005). “El textil y la feminización de la pobreza”. www.cleanclothes.org/resources/publications/translations/fabricado-por-mujeres.pdf

53. Ibídem.

adinari buruzko Hitzarmeneko 3. artikulua 1973)⁵⁴. Hala ere, haurren lana badago, ehungintzaren produkzio kate osoan zehar. Kotoiaren laborantzan, ehunen fabrikazioan, tailerretako akaberetan eta jantzigintza fabriketan.

Ez dago, hala ere, industria honetan lan egiten duen haur kopuruari buruzko daturik. SOMO-ren arabera India, Uzbekistan, Txina, Bangladesh, Egipto, Tailandia et Pakistan dira ehungintza ekoizpen katean zehar adingabeko gehien dauden herrialdeak⁵⁵. AEB-ko Lan Departamentuko azken ikerketaren arabera⁵⁶ Argentina, Brasil eta Kanbodiaren kasuak gehitu ditu, azken hau ez baita aurreko urteko txostenetan sartu.

Eszenatoki ikaragarriena kotoia jasotzearena da. Uzbekistan da horren adibide onena. Iraila guztietan, mundu erdiko haurrak eskolan hasten diren unean, Uzbekistango gazteek ikasgelak utzi eta soroetan barrena sartzen dira. Orduak eta orduak egiten dituzte kotoi kiloak jasotzera behartuta. Kotoi guzti hori Europara bidaliko da. Urre zuria jasotzea Gobernutik antolatzen da, horren salmentarekin lortzen baitu diru-sarrera iturri garrantzitsuenetako bat. Derrigortutako lan-eremu honetan haurrek parte hartzeaz gain. Gobernuak langileak, sendagileak edo irakasleak ere badaude. Beren lanak galtzeko mehatxua egiten zaie kanpainan parte hartzen ez badute. Gutxi gora behera milioi bat pertsona⁵⁷ hartzen dituzte urtero.

Indian ere oso arrunta izaten da haurrak esku-lan moduan erabiltzea ehungintzaren sektorean. Gujarat, Andhra Pradesh, Tamil Nadu eta Karnataka estatuetan, zeintzuk herrialde osoko produkzioaren %90a suposatzen duten, 18 urtetik beherako 400.000 haur baino gehiagok parte hartu zuen kotoia jasotzeko 2010eko kanpainan. Erdiak 14 urte baino gutxiago zuen. Hala ere, kopurua %25 batean murriztu zen 2006ko kanpainarekin alderatu⁵⁸.

Urteekin fabriketan dauden adingabeen kopuruak behera egin du, batez ere 90eko hamarkadan Nike edo Adidas bezalako markek, Asiako hego ekialdeko herrialdeetan kontratatutako hornitzaileen bidez, eskulan gisa haurrak erabiltzen zituztela argitaratu zenetik. Orduetik, fabrika hauetako ikuskaritzak areagotu egin ziren. Hala ere, enpresetako jabeek haurrak enplegatzen dituztela ezkututzen diete ikuskatzaileei eta gainera ez dituzte

Haurren lana badago, ehungintzaren produkzio kate osoan zehar

langileen identifikazioak modu zuzenean egiaztatzen, izan ere langileek askotan ez dute beren egiazko adina esaten. Ohizkoa da hau Kanbodia bezalako herrialdeetan.

Bestalde, fabrika hauetako askok jarraitzen duten tailer klandestinoekin edo etxean lan egiten duten pertsonekin lanean, non adingabeen gaineko kontrolik ez dagoen. Marokon, milaka neskatilak egiten du lan ehungintza tailerretan oporretan daudenean. Teorian apendiz gisa 2011n argitaratutako Arropa Garbia Kanpainaren txosten baten arabera⁵⁹, nagusien lan berdina egiten amaitzen dute, baina soldata minimoaren %40a besterik ez dute jasotzen.

Osasunean duen talka

2013ko apirilaren 24an, Bangladesh-eko hiriburutik, Dhaka-tik gertu dagoen Savar herriko Rana Plazan zortzi solairutako eraikin bat amildu zen. Bertan ehungintza tailerrak zeuden. 1.130 pertsona hil ziren. Bangladeshen, soldata kostuak oso baxuak dira eta laneko segurtasun eta higiene baldintzak negargarriak dira.

Laster jakin zen Rana Plazako enpresak nazioarteko marken hornitzaileak zirela eta berri horrek nazioartean izan zuen talkaren ondorioz, zenbait markek segurtasun baldintzak hobetuko zituztela iragartzera behartuta ikusi zuten beren buruan. Giza eskubideen aldeko sindikatu eta erakundeek bultzatutako nazioarteko kanpaina baten eraginez⁶⁰, Europar Batasuneko, Asiako, Kanadako, AEBko eta Australiako 190 enpresek eraikinen segurtasunari eta suteak prebenitzeari buruzko Hitzarmen bat sinatu zuten. Bestalde Estatu Batuetako 17 markek, Gap eta Wal-Mart horien artean, beren plan propioa sortuko zutela iragarri zuten. Bestalde, Bangladesh-eko gobernuak gutxieneko soldata igoko zuela azaldu zuen eta sin-

54. OIT www.ilo.org/dyn/normlex/es/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100_INSTRUMENT_ID:312283

55. SOMO (2014). *Fact Sheet, Child labour in the textile & garment industry, Focus on the role of buying companies.*

56. US Department of Labour (2013). *Findings on the Worst Forms of Child Labor.*

57. Cotton Campaign (2013). *Review of the 2013 Cotton Harvest in Uzbekistan: State Forced-Labour System Continues.*

58. India Committee of the Netherlands (2010). *Seeds of child labour. Signs of hope. Child and Adult Labour in Cottonseed Production in India.*

59. Sales, Albert eta Piñeiro, Eloísa. Arropa Garbia Kanpaina (2011). *La moda española en Tángar. Condiciones de vida y supervivencia de las obreras.*

www.ropalimpia.org/adjuntos/noticias/materiales/Moda-espanola-en-Tanger.pdf

60. www.cleanclothes.org/resources/background/history-bangladesh-safety-accord

Rana Plazako eraikinaren erorketak, nazioarteko eztabaida sortu zuen ehungintzaren industriako lan-baldintzen gainean

dikatuak legeztatzea aurreikusten duen lanerako legedi berria onartu zuen.

Rana Plazako eraikinaren erorketak, nazioarteko eztabaida sortu zuen ehungintzaren industriako lan-baldintzen gainean eta gainera munduko moda marken eta tailer hauen lotura zuzena ezagutu ahal izan zen. La marka garrantzitsu guztiak konektatuta zeuden, modu zuzen edo ez zuzenean, kaltetutako fabrika horiekin. Lotura zuzena zenean, marka horiek biktimei kalte-ordainak eman behar izan zizkieten, baina ez dute marka guztiak mantendu beren hitza.

Tailerretako baldintza negargarriez gain, zenbait kasutan langileek teknika arriskutsuak erabili behar izaten dituzte ehunak tratatzeko. *Sandblasting* prozesuaren kasua da hauetako bat, galtza bakeroei zaharkitu itxura eman eta kolorea kentzeko gehien erabiltzen den tekniketako bat, hain zuzen era. Ehunean presio bidezko harea aplikatzean datza. Askotan ez dute inolako babesik erabiltzen. Honek biriketako gaixotasun larriak ondorioztatu ditzake



© RIJANS-FLICKR

hile gutxiren buruan, hala nola silikosisa, meatzarien gaixotasuna. Desberdintasuna denbora da. Meatzariak hamarkada askotan zehar lan egin ondoren jasaten dute gaixotasun hau. Hala ere, ehungintzan, nahikoa da urte batez lan egitea.

2000 hamarkada hasieran, galtza bakeroen jantzigintzaren industria Turkian metatzen hasi zen. *Sandblasting* teknika bertara joan zen. Hortik urte gutxi batzuetara, 2005ean, sendagile batek fabrika mota hauetan lan egiten zuten langileen eta arnasketa arazoaren artean lotura zegoela ikusi zuen. Arazoak hain ziren larriak, langile asko hil egiten zirela. *Sandblasting*-eko Langileen Solidaritate Batzordearen arabera⁶¹ lehenengo kasuak detektatu zirenetik 2010eraino, gutxienez sektorean lan egiten zuten 46 pertsona hil ziren silikosisa zela eta. Guztiak hartu zuten gaixotasuna *sandblasting* teknikarekin lana egiten zutelako. 2009 urean, Turkian silizearen erabilera debekatu zen eta industria Bangladesh, Egipto, Txina edo Jordania bezalako herrialdeetara aldatu zen⁶². Hala ere, Arropa Garbia Kanpainak⁶³ bertan egiaztatu du, teknika honen erabilera ez dela guztiz desagertu. Badaude beste metodo batzuk, elementu kimikoak erabiliz edo harria edo laserra erabiliz garbitzea, baina guztiak dira *sandblasting* teknika baino garestiagoak. Hala ere, badirudi metodo batek ere ez duela ziurtatzen langileen osasuna salbu egongo denik.

Arropek gizartean eta ingurumenean ondorio asko sortzeaz gain, jantzi horiek erabiltzen dituzten osasunean ere eragina izan dezakete. Greenpeace-k egindako *Moda sin tóxicos* ikerketan zehazten da jantzien industriak erabiltzen dituen zenbait ehunen eta kimikoen ondorioztatzen dituzten arriskuak. Erakunde honek sustantzia sintetiko artifizialak “kontrolaz kanpo” daudela ohartarazten du, gainera zenbait ikerketa zientifikok “ugalketa

Sandblasting’-a langileengan eragin kaltegarriak dituen ehunak lantzeko teknika arriskutsua da

61. Sandblasting-eko Langileen Solidaritate Batzordea 2008ko ekainean sortu zen ehungintzaren industrian *sandblasting* teknikaren kontra borroka egiteko.

62. Riddselius, Christopher. Fair Trade Center (2010). *Fashion Victims. A report on Sandblasting Denim*.

63. www.nosandblasting.org

Arropek gizartean eta ingurumenean ondorio asko sortzeaz gain, jantzi horiek erabiltzen dituztenen osasunean ere eragina izan dezakete

sistemaren eta sistema endokrinoaren zenbait gaixotasun, minbizia, alergiak edo asma, zuzenki lotuta daudela egunero *koktel kimiko* honekin kontaktuan egotearekin” adierazten dute⁶⁴. Greenpeace-ren arabera 100.000 substantzia kimikorekin bizi gara. Horietako heren bat guztiz ezezagunak dira.

Petroliotik edo kotoia bezala, zuntz naturaletatik datozen zuntzek ingurumenean sortzen duten eraginen aurrean, “ehun ekologikoak” erabiltzea proposatu da. Ehun hauek kotoi birziklatuarekin eta soja eta banbu zuntzekin egindako iruteak erabiltzen dira. Aukera interesgarriak izan daitezke, hala ere, edozein alternatibak arazo bat izaten amaitzen du, kontsumoaren arrazionalizazioarekin batera egiten ez bada.

Sindikatuak zirikatzea

Sindikatuak langileak ordezkatzeko izaten dituzten arazoak zeharkakoak izaten dira herrialde bateko sektore guztietara eta herrialdeko legediaren eta lege horiek praktikara modu eraginkorrean eramateko estatu mailan egiten diren kontrolen menpe egoten dira hauek normalean. Hala ere, orokorrean, ehungintzaren ekoizpen zentroak sindikatuak eta taldeko negoziaketa prozesuak bermatuta ez dauden herrialdeetan kokatzen dira normalean.

Bangladesh horren adibide on bat zen Rana Plazako eraikina erori zenera arte. Bangladesh-en sindikatuak legalak ziren ustez, hondamendiaren aurretik, baina bertan erregistratzea odisea bat zen. Hiru aste beranduago, gobernuak lege aldaketa bat iragarri zuen, sindikatuen legalizazioa errazteko eta horietako asko hasi dira jada

zenbait produkzio zentrotan antolatzen. hala ere, oraindik badaude sindikatu batean egoteagatik errepresalien-gatik salaketak.

Ehungintzaren ekoizle nagusia den Txinan, sindikatuen ordezkariak estatuak kontrolatzen du zorrozki All-Chinese Federation of Trade Unions/ACFTU sindikatuaren bidez. Herrialdeko langileen mugimendu guztia kontrolatzen duen sindikatu bakarra, hain zuzen ere. Beraz, legeek fabriketan ordezkariak hautatzea ahalbidetzen dute, baina hauen jarduera ACFTU sindikatuari jakinarazi behar zaio. Honek asko saihesten du lan-hobekuntzak lortzeko aukerak edukitzea.

Kolonbiako Antioquia departamentuan, ego Amerikako herrialdeetatik ehungintzaren industria indartsuene-takoa duena, sindikatuak jazarpen etengabea jasan dute. Central Unificada de Trabajadores-en (CUT) arabera, Sintratextil, sektoreko sindikatu oso ezaguna zen 90eko hamarkadan sektorean lan egiten zuten pertsonen eskubideak urratzearen kontra borroka egiteagatik. Hala ere, sindikatuen kontra egindako presioak, larderia eta mehatxuak barne, ehungintzan lan egiten zuten langileen baldintzak txartu zituen: kontratu mugagabeak amaitu ziren eta aldi baterako lan ezegonkorrengatik ordezkatu ziren. Sindicalista azko beren enpleguetatik urrunditu zituzten. Batzuek ordainsariak jaso zituzten borroka sindikala uzteagatik. Eraitza laken eta etxeko lanaren inposaketa izan ziren, gain-esplotazio baldintzetan eta inolako segurtasunik gabe⁶⁵. ●

Ehungintzaren ekoizpen zentroak sindikatuak eta taldeko negoziaketa prozesuak bermatuta ez dauden herrialdeetan kokatzen dira normalean

64. Op. cit.

65. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi: cut.org.co/el-antisindicalismo-y-la-pauperizacion-laboral-destruyeron-la-industria-textil-en-antioquia-2/

5. Bidezko Merkataritza alternatiba gisa



Arropa da seguruenik, hau egiteko dauden lan baldintza gogorren aurrean kontzientzia sozial gehien pizten duen produktuetakoa bat, baita kontsumo ideologiaren gehiegikeriaren aurrean, zeinen adierazpen maximoa behar diren. Gizarte erakunde askok egin du kanpaina modarekin lotutako esklabo lanaren kontra borroka egiteko, hala nola, Arropa Garbia Kanpaina (Espainian SETEM-ek koordinatua) edo Oxfam Intermón-en ekimenak. Biak dira erakunde historikoak Bidezko Merkataritzak sustatzen dituen printzipio eta baloreak defendatzeari dagokionez.

Erresistentzia ugari daude mundu mailan, salaketak egiten dituztenak edo boikot neurriak proposatzen di-

tuztenak. Nike edo Adidasen kontra egiteko kanpainak esate baterako. Hala ere, egia da, marka handiei buruz ari garenean, ia gehienek erabiltzen dituztela antzerako estrategiak beraz ez du askorako balio izaten kontsumoa batetik bestera aldatzea.

Modu paraleloan eta *kontsumo erantzulea* delakoarekin bat egiten duten biztanleriaren geroz eta geruza gehiagori aukera desberdinak emateko, ohizko merkataritzaren desberdinak diren alternatiba ugari sortu dira.

Baina *Sozialki erantzulea* deritzan kontzeptuaren barruan definizio, sentsibilitate eta gizarte erantzukizuna ulertzeko modu anitz sartzen dira, eta askotan ez du zerikusirik batak bestearekin.

Alternatiba hauek bereizten hasteko modu on bat da, horien atzean zein dagoen jakitea, nork sustatzen dituen ekimen, ziurtagiri eta zigiluak moda jasangarriaren industrian. Horietako asko multinazionalak sustatzen dituztela ikusiko genuke. Koaderno honetan azaldu ditugun praktikak direla eta, salatuak izan diren multinazional berdinak. Beren ziurtagiriak hain izapide arduragabeak defendatzen dituzte, askotan gizarte erantzukizunaren eta ingurumenaren defentsaren berme erreal bat baino gehiago, publizitaterako erakargarri bihurtzen dira gehiago.

Hala ere, badaude baita ere gure arreta merezi duten ekimen oso interesgarriak ere. Horien artean aipatzen da *Slow Fashion* (Moda geldoa) mugimendua. *Fast Fashion* mugimenduaren kontra atera da eta arropak egin diren gizarte eta ingurumen aspektuak nabarmendu nahi ditu. 2011 urtean sortu zen *Slow Fashion Spain* plataforma "jasangarritasunaren irizpideak produktuaren ziklo guztian sartzeko helburuarekin: lehengaien erauzketatik banaketara, baita jantzien eraldaketa eta jostintza prozesuetan ere"⁶⁶.

66. El Periódico. "No creo que las grandes marcas puedan ser sostenibles".

www.elperiodico.com/es/noticias/tendencias-sostenibles/creo-que-las-grandes-marcas-puedan-ser-sostenibles-3401537

Espanian ere *Moves to Slow* webguneak⁶⁷ arropak, oinetakoak edo imitaziozko bitxiak, irizpide ekologiko, etiko eta gertukoekin kontsumitzeko /ekoizteko interesa duten kontsumitzaileak eta ekoizleak harremanetan jartzeko plataforma izan nahi du.

Ez da lan honen helburua moda jasangarriari gaur egun dauden ekimen guztien ahultasunak eta puntu indartsuak aztertzea. Baina garrantzitsua iruditzen zaigu aipatzea ekimenak sustatzen dituztenen heterogeneotasuna eta zein aspektutan eragiten duten. Guztiek ez dituzte irizpide berdinak ezta zorrotasun maila bera ere. Beraz, zenbait ziurtagirik azterna ekologikoa fiskalizatu nahi dute, beste batzuk berriz garrantzi gehiago ematen diete ekoizpen ekologikoari edo sustantzia kaltegarriak ez erabiltzeari.

Ekimen guzti hautatik, Bidezko Merkataritza, alternatiba indartsuenen artean kokatzen da, bai defendatzen dituen irizpideen gainean duen ikuspegi holistikoagatik, zeintzuk gizartearekin, ekonomiarekin eta ingurumenearekin lotuta dauden, bai prozesuen gardentasunean duen zorrotasunagatik.

Zertan datzate Bidezko Merlataritzaren printzipioak?

Bidezko Merkataritzak gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren justizia defendatzen du. Horretarako merkataritza praktika jakintza batzuk aplikatzen ditu. Hauek dira, beste aspektu batzuen artean, praktika horien ezaugarriak:

- **Soldata duinak ezartzea:** Langileek duintasunez bizitzea ahalbidetuko dien soldatak jasoko dituzte, beren oinarrizko beharrak ordaindu ahal izateko.
- **Lan baldintza egokiak eta langileen osasunaren babesa:** Lan baldintzak seguruak dira eta ez da langileen osasuna arriskuan jartzen. Adibidez, kotoiari dagokionez, modu organikoan lantzen da, sustantzia kimikorik erabili gabe eta teknika ekologiko eta "garbien" bidez prozesatzen denez, langileek eta nekazariak ez dituzte gaixotasunik garatzen.
- **Haurren esplotaziorik ez egotea:** Bidezko Merkataritzak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarrena betetzen dela bermatzen du, batez ere haurren esplotaziorik ez egoteari dagokionez.

- **Emakumearen autonomia eta gizartearen duen garrantzia hobetzea:** Emakumearen sustapena da Bidezko Merkataritzaren beste ardatz nagusietako bat. Izan ere, Bidezko Merkataritzaren ehungintza sektorean langile gehienak emakumeak baitira. Lanari esker beren egoera ekonomikoa hobetzen dute, gainera beren independentzia eta autoestimua bultzatzen dute, gizartearen duen begirunea areagotuz. Gai nontzeko langileei moduan, prestakuntza teknikoa, profesionala eta kudeaketa ekonomikoari buruzkoa eskaintzeaz gain, giza eta lan eskubideen aspektuak, genero berdintasuna, boterea hartzearenak ere irakasten zaizkie. Horri esker beren garapen pertsonala eta autonomia indartzen da. Aspektu garrantzitsua da hau, batez ere Asiako, Afrikako edo Amerika latindarreko emakumeek jasaten duten baztertze egoera kontutan hartuta.
- **Ingurumenaren babesa:** Bidezko Merkataritzaren erakundeek ingurumena ez kaltetzeko prozesuen bidez lan egiten dute. Kotoi laborantzari dagokionez, ekoizpen ekologikoa da, kimikorik, pestizidarik edo herbizidarik erabiltzen ez duena. Bestalde, jostuntza erdi artisaua da, ez industrialia sustatzen du, beraz, ingurumenean izan dezakeen eragina asko murrizten da.
- **Kudeaketa demokratikoa:** Bidezko Merkataritzaren ehungintza erakunde askok hartzen dituzte gizarte ekonomia forma juridikoak, hau da erakundeak edo kooperatibak. Bertan langileek parte hartzen dute erabakiak hartzeko orduan.
- **Produkzioaren aurre-finantzaketa:** Ekoizleek dituzten desabantaila ekonomikoak kontutan hartuta, hauek hirugarrenekin zorrik ez edukitzeko, gutxienez %50eko aurre-ordainketa ezartzen zaie Bidezko Merkataritzaren artisau taldeei.
- **Epe luzerako merkatal harremanak:** Ekoizleek eta inportatzaileek batak bestearekiko solidaritatean, konfiantzan eta errespetuan oinarritutako harremana dute. Honek Bidezko Merkataritzaren hazkundera eta sustapena ahalbidetzen du.
- **Gizarte prima:** alde zurretik hitzartutako prezioari gehitzen zaion kantitate bat, modu demokratikoak, erkidegoko bizitzaren kalitatea hobetzeko lehentasunezko moduan definitu diren aspektuetan inbertitzeko bideratuta egongo dena.


67. *Moves to Slow*. www.movestoslow.com/

Nola eragiten du Bidezko Merkataritzako produktu bat erosteak ekoizleen bizitza baldintzen hobekuntzan? Adibide praktiko bat

Bidezko Merkataritza soldata duin bat baino askoz ere gehiago dela ikusi dugun arren, gehien egiten den galderetako bat soldatako nola zehazten diren izaten da. Beste modu batean esanda, diru horretako zenbat jasotzen du ekoizleak eta zein da merkataritza arruntarekin dagoen desberdintasuna. Adibide bat azalduko dugu.

Ikus dezagun nola banatzen diren kamiseta baten gastuak SETEM-Arropa Garbia Kanpainaren *Soldata Duinak* txostenaren arabera⁶⁸.

KAMISETA BATEN GASTUEN BANAKETA



*Saltokiaren kostu guztiak barne, langileak, alokairuak, dendaren mozkinak, BEZ, e.a.

68. Op. cit.

69. Fairtrade International. www.fairtrade.net/fileadmin/user_upload/content/2009/resources/2013-Fairtrade-Monitoring-Scope-Benefits_web.pdf

70. Fairtrade Ibérica. www.sellocomerciojusto.org/es/productores/algodon/

71. Fair Trade Advocacy Office. fairtrade-advocacy.org/about-fair-trade/the-fair-trade-movement

Merkataritza arrunteko kamisetak balio dituen 29 euro-tatik, 0,18 emango zaizkio kamiseta egin zuen pertsonari. Jarraian ikusiko ditugu, Inditex taldeko marka batetako (Massimo Dutti) kamiseta bati aplikatutako gastuen banakapenaren eta Bidezko Merkataritzako batenaren arteko desberdintasunak. Konkretuki Oxfam Intermón-en *Veraluna* Bidezko Merkataritzaren arropa bildumakoa.

	KAMISETA ARRUNTA (ARROPA GARBIA)	Massimo Dutti MASSIMO DUTTI POLOA (INDITEX)	VERALUNA Veraluna CI POLOA	DESBERDINTASUNA
Lehengaiak	3,40 €	2,69 €	3,30 €	23%
Esku-lana	0,18 €	0,14 €	1,96 €	1272% } 53%
Gastu orokorrak	0,27 €	0,21 €	1,27 €	
Fabrikaren mozkinak	1,15 €	0,91 €	0,17 €	
Bitartekariak	1,20 €	0,95 €	0,00 €	
Garraioak	2,19 €	1,73 €	2,61 €	51% } 1%
Markaren mozkinak	3,61 €	2,86 €	0,99 €	
Txikizkakoa	11,97 €	9,47 €	10,29 €	
BEZ	5,03 €	3,98 €	4,32 €	
Azken prezioa	29 €	22,95 €	24,90 €	8%

Iturria: Oxfam Intermón-eko Juanjo Martínez aurreko taularen zalapartaren harira.

Ikus dezakegun moduan, datu aipagarriena lan-kostuak dira. Hauek %1272 gehiago suposatzen dute Bidezko Merkataritzan egindako kamiseta batean, merkataritza arruntaren bidez egindako kamiseta batekin alderatuz.

Bidezko Merkataritzaren eragin positiboez onura izaten dute modu zuzenean ekoizpen erakundeetako langileak. Fairtrade International-en datuen arabera, Bidezko Merkataritzaren ziurtagiria duen kotoi produkzioan 73.400 pertsonak lan egiten dute mundu osoan zehar⁶⁹. Zifra hau oso txikia da munduan orokorrean, kotoia lantzen duten 100 milioi pertsonekin konparatuz⁷⁰. Hala ere, zifra txikia dela dirudien arren, ezin dugu ahaztu honek pertsona bakoitzean, eta ondorioz bere familian eta erdidegoan duen eragin positiboa.

Zifra hau ere baxua da Bidezko Merkataritzaren sareko ia 1000 erakundeetan lan egiten duten bi milioi pertsonekin konparatzen dugunean⁷¹. Ehungintzaren industriak oraindik ez du behar luken garrantzia Bidezko Merkataritzaren barruan, baina bere pisu zehatza handiagotzen joango da, modaren sektorean kontsumitzaile erantzule gehiago sartzen diren neurrian. Esklabutzaren eta esplotazioaren bidez egiten den arroparik nahi ez dituzten kontsumitzaileak, hain zuzen ere.

Kotoi produkzioan 73.400 pertsonak lan egiten dute mundu osoan zehar

Espanian, protagonista elikadura da, izan ere Bidezko Merkataritzan egiten diren 10 erosketako 9 baitira eta oso marjina gutxi uzten dio artisautzaren sektoreari. Sektore horren barruan kokatzen da ehungintza. 2013 urtean erregistratutako fakturazio osoaren %1,7a (31 milioi euro) besterik ez dagokio ehungintza produktuei⁷², baina maila horren barruan sartzen diren beste produktu batzuetan gertatzen ez den bezala, zifra hau handiagoz ari da poliki-poliki.

Eskaintza mugatua den arren, Europako beste herrialde batzuek duten egoera berdinerira iristea espero dugu, non posible den jantzeko behar guztiak estaltzea Bidezko Merkataritzako jantziekin, barruko arropatik, bulegora joateko arropetara. Gure herrialdean oraindik oso eskasa da Bidezko Merkataritzaren arropa eskaintza. Horren erantzuna Europarekiko 20 urteko atzerapena, merkataritza eredu alternatibo hau inplementatzeari dagokionez. Hala ere, urtetik urtera desberdintasun hori murrizten ari gara.

Beraz baikorrak gara gure herrialdean Bidezko Merkataritzaren ehungintzaren hazkundera eta presentziari dagokionez. Horrela adierazten du baita ere 2014ko iraileko *Eurobarómetro* inkestak ere. Horren arabera, Espainiaren %45a prest egongo litzake Bidezko Merkataritzako produktuengatik gehiago ordaintzeko⁷³.

Nola jakin daiteke produktu bat Bidezko Merkataritzakoa den?⁷⁴

Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen (WFTO) arabera⁷⁵ mugimendu honetako erakunde aipagarriena mundu mailan, non Bidezko Merkataritzaren Estatu Koordinakundea bertan sartuta dagoen, produktu bat Bidezko Merkataritzaren barruan sartzen da jarraian zehazten diren baldintzak betetzen baditu:

- Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen erakunde kideren batek egin du.

- WFTOk aintzatesten duen Bidezko Merkataritzaren ziurtagirietakoren bat du. Fairtrade International, Eco-cert, IMO-Fair for Life, Naturland, Fundeppo.

Non aurki ditzaket Bidezko Merkataritzako ehungintza produktuak?

Aurrean azaldu dugunaren arabera, Espainiaren kasuan, Bidezko Merkataritzako ehungintza produktuen gama zabala dago (fularrak, mahai-zapiak, amantalak...), hala ere egia da, arropari dagokionez, oraindik eskaintza oso mugatua dela.

Ez da berdina gertatzen beste herrialde batzuetan, hala nola Erresuma Batuan People Tree erakundearekin adibide gisa⁷⁶. Bidezko Merkataritzaren barruan dago eta arropan espezializatuta egoteaz gain, erreferente bat bilakatu da sektorean. Espainiaren kasuan, gure erakundeek kudeatutako dendetan eta CECJ-ko erakunde kideek kudeatutako saltokietan aurkituko dituzu Bidezko Merkataritzaren ehungintza produktuak. 140 baino gehiago daude autonomia erkidego guztietan. Kontsulta itzazu helbideak hemen: www.comerciojusto.org/tiendas

Nork ekoizten ditu Bidezko Merkataritzaren ehun-gaiak?

Espanian erosten ditugun Bidezko Merkataritzaren arropa eta ehungintza produktuak, bereziki Asiako India, Bangladesh, Nepal, Sri Lanka edo Filipinetan, eta neurri txikiago batean Amerika Latindarrean (Peru eta Bolivia) dauden erakundeek egiten dituzte.

%45a prest egongo litzake Bidezko Merkataritzako produktuengatik gehiago ordaintzeko

72. CECJ. *Bidezko Merkataritza Espainian 2013. Diagnósticos y alternativas en clave europea.*

comerciojusto.org/publicacion/el-comercio-justo-en-espana-2013-diagnosticos-y-alternativas-en-clave-europea/

73. Fairtrade Ibérica. www.sellocomerciojusto.org/news/es_ES/2015/01/14/0001/45-de-los-espanoles-pagarian-mas-por-productos-que-ayudan-a-paises-en-vias-de-desarrollo

74. CECJ. *¿Cómo saber si un producto es justo?* comerciojusto.org/que-es-el-comercio-justo/¿como-garantizo-que-un-producto-es-de-comercio-justo/

75. WFTO. www.wfto.com

76. People Tree. www.peopletree.co.uk/

Kotoia ekoizten duten zenbait erakunde

AGROCEL (INDIA)

Irabazi asmorik ez duen erakundea da eta 20.000 langile baino gehiago biltzen ditu. Nekazari talde batek osatu zuen 2005an. Nekazari hauek produktu organikoak eta Bidezko Merkataritzakoak ekoizten hartzeko erabakia hartu zuten. Laborantza metodo naturalak erabiltzen dituzte, ez dute produktu kimikorik erabiltzen, garestiak izateaz gain, kaltegarriak direlako lurrerako eta nekazarien osasunerako. Erakundeak ekoizpenagatik prezio duina ordaintzeaz gain (kotoi arruntarena baino handiagoa), nazioarteko merkatuetan sartzeko aukera dute, laborantzarako materiala ematen zaie eta aholkularitza eta laguntza eskaintzen zaie nekazariei. Langileek, osasun aseguru bat eta pentsioa jasotzen dute eta amen kasuan, ordaindutako amatasuna.

www.agrocel.co.in/new/index.html

Arropa eta ehungintzako beste gai batzuk egiten dituzten erakundeak

RAJKLASHMI COTTON MILLS (INDIA)

Bi fabrika ditu. Bertan 250 langilek ehungintza, tintura, joskintza eta serigrafia lanak egiten dituzte. Langileek lan baldintza seguru, duin eta egokietan garatzen duten beren produkzioa. Bidezko Merkataritzaren irizpideen arabera lan egiteaz gain, lortzen diren mozkinak ekimen desberdinak aurrera eramateko erabiltzen dira. Hala nola, edateko ura erkidegoetara eramane ahal izateko azpiegiturak, nekazariei prestakuntza teknikoa eskainiko dien eskola bat edo familien arteko auto-laguntza taldeak sortzeko laguntzak. Erakundeak ECOCERT eta FLO ziurtagiriak ditu. Jantziak egiteko erabiltzen duten kotoia Chetnai Organic Farmers erakundeari erosten zaio. Erakunde honek kotoi organikoa eta Bidezko Merkataritzako ekoizten duten Indiako lau estatutako 6.500 nekazari talde txiki biltzen ditu.

www.rcm-organic.com

MAHAGUTHI (NEPAL)

Teknika tradizionalen bidez egindako ehungintza eta artisautza gaiak ekoizten eta eportatzen dituen erakundea. Talde txikietan antolatutako 1200 artisau inguru biltzen ditu, gehienak emakumeak. Horietako asko isolatuta bizi dira mendietan. Erakundearen helburua, hauei lana baldintza seguru eta duinetan ematea eta aldi berean kultura, arte eta artisautza tradizioa zaintzea da. Bidezko Merkataritza



© FELIPE ADEBA SETEM

ritzako sareko nazioarteko merkatuetan saltzeaz gain, hiru denda ditu Katmanduko bailaran. Salmentekin ateratzen dituzten mozkinak Ashram Tulsī Mehar Mahila erakundera bideratzen dira. Bertan bizitza baldintza zailak dituzten emakume eta hurrei eskaintzen zaie laguntza. Elikadura, arropak, etxebizitza, osasuna, hezkuntza eta prestakuntza profesionala eskaintzen zaie bertan, baita mantenua ziurtatuko dien lanak egin ahal izateko prestakuntza profesionala ere. Fair Trade Nepal Group bidezko merkataritzaren kide sortzailea da Mahaguthi.

www.mahaguthi.org

SELYN (SRI LANKA)

Erakunde hau 1991an sortu zenean 12 emakume zeuden, eta gaur egun 700 pertsoneri eskaintzen die lana, gehien- goa emakumeak. Haurrentzako materialak eta jostailuak sortzen dituzte kotoiarekin eta beste lehengai natural batzuekin. Ingurumena babesteaz gain, bere helburuetako bat emakume pobreenen bizitza kalitatea hobetzea eta beren autonomia lortzea da. Lau tailer eta bi ekoizpen unitate dituzte. Gaiak artisautza bidez egiten dira (ehundegian eta eskuz). Lortzen diren mozkinak gizarte-programetan inbertitzen dira. Garrantzitsuenetako bat lehen eta bigarren mailako eskola baten sorrera izan da. Diru-laguntzak eskaintzen zaizkie arazo ekonomiko gehien dituzten ikasleei eta laguntza etxebizitzak eraikitzeko. Soldataz gain, erakundeak osasun-aseguru bat, sendagilearen gastuen ordainketa, interesik gabeko kredituak, hostatua, janaria, garraioa, e.a. eskaintzen die urrun bizi diren pertsoneri. Selyn Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen kide da.

www.selyn.lk

CIAP (CENTRAL INTERREGIONAL DE ARTESANOS DE PERÚ)

Artisautza merkaturatzeaz eta esportatzeaz arduratzen den Bidezko Merkataritzako erakundea. 1983an sortu zen, artisauek beren baldintza ekonomiko eta sozialak hobetzeko zuten beharra zela eta. Bitartekariak baldintza txarrak eskaintzen baitzizkien eta ekoizpen baldintzak jasangaitzak ziren. Herrialdeko eremu desberdinetan

banatuta dauden 21 taldetan antolatuta dauden 700 pertsona biltzen ditu. Erakundearen lana erantzukizuna, gardentasuna, solidaritatea eta indibidualismoa gainditzeari bezalako balioetan oinarritzen da. Erkidego izpiritua da beste ezaugarrietako bat. Mozkinen zati garrantzitsu bat artisauei prestakuntza emateko erabiltzen da, hala nola, diseinua, merkatuko joerak, lidergoa, kalitatea edo kontabilitatea bezalako gaien inguruan. Gainera aurrezki eta kreditu kooperatiba bat sortu dute. Langileek osasun aseguruua, pentsioak, eskupekoak eta oporrak dituzte. 1995etik Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen barruan dago.

www.ciap.org

SADHNA (INDIA)

WFTOko kide den kooperatiba da. Brodatu eta patchwork teknikak erabiliz ehungintza produktuak sortzen dituzte eskuz. Gainera, emakume artisauei beren trebezia hobetzeko prestakuntza jarraitua eskaintzen zaie eta era berean beraiantzat eta beren erkidekoentzat sare bat sortzen da.

Beste produktu batzuen artean, haurrentzako alkandorak eta soinekoak merkaturatzen dituzte.

www.sadhna.org

Bidezko Merkataritzako arroparen bi esperientzia

OXFAM INTERMÓN FUNDAZIOA VERALUNA COMERCIO JUSTO

Oxfam Intermón-ek sustatutako Bidezko Merkataritzaren arropa bilduma Hoss Intropia Espainiako markaren laguntzarekin eta Indiako Bidezko Merkataritzaren

printzipioetan oinarrituta lan egiten duten kooperatibek egina⁷⁷ horien artean aurkitzen dira: Creative Handicrafts, EMA, CRC eta Rajklashmi cotton Mills. *Veraluna Comercio Justo* bildumak kotoi organikoz egindako emakume, gizon eta haurrentzako jantziak, pixamak eta osagarriak eskaintzen ditu.

Creative Handicrafts⁷⁸ *Veraluna Comercio Justo* bildumako jantziak ekoizten dituen erakundeetako bat da eta 270 emakume biltzen dituen kooperatiba da. Noizbehinka, erakundeak 400 pertsona gehiago izaten ditu. Bere helburua langileen bizitza kalitatea hobetzea eta beren autonomia lortzea da. Langileak talde sozial mesprextatuenetatik datoz. Lanarekin, soldata duin bat lortzeaz gain, beren autoestimua eta gizartean duten begirunea areagotzen da. Erakundeak aseguru mediku bat eta erretirorako pentsioa eskaintzen ditu. Funtsezkoa da hau Indian estaldura hauek ez daudela kontutan hartzen bada. Adingabeentzako ikastetxea, diru-laguntza programak eta emakumeen ekimenak bultzatzeko mikro-kredituak ere sustatu ditu. Ekoizpena modu erdi-artisauean gauzatzen da (eskuz eta makinarekin) kotoiarekin eta bertako beste produktu batzuekin.

www.oxfamintermon.org

TALLER DE SOLIDARIDAD FUNDAZIOA: MAITASUNEZ EGINDAKO KIROLERAKO ARROPA

SORMEN Solidaridad-ek bultzatutako Bidezko Merkataritzaren kirol-jantzien bilduma Nazaret Tailer sarearen barruan dagoen Mandaluyong-eko tailerretan (Filipinak) egiten dira. Sei zentrok osatzen duten sarea eta horietako hiruk Bidezko Merkataritzako ehunak ekoizten dituzte herrialde horietan (Mandaluyong tailerrez gain, Quezon Herriko eta Cebu-koak daude).

© CREATIVE HANDICRAFTS



© TALLER DE SOLIDARIDAD

77. Oxfam Intermón. www.oxfamintermon.org/es/comercio-justo/noticia/nueva-coleccion-otono-invierno-2014-2015-de-veraluna

78. Creative Handicrafts. www.creativehandicrafts.org/

Hecha con Amor bilduman eta korrika egiteko, saskibaloian, tenisean edo futbolean jolasteko kamisetak eta jantziak eskaintzen ditu. Txandalak eta ekipazioak ere ekoizten ditu ikastetxeetarako eta kirol elkarteetarako.

Mandaluyong baztertuta gelditzeko arriskua duten emakumeak bizi dira. Horietako asko ikasteko baliabiderik ez duten gazteak dira, beste batzuk lana aurkitzeko zailtasunak dituzten emakumeak gizartean dauden aukera desberdintasunak direla eta. Badaude beren familiak landaguneetan utzi eta etorkizun hobe baten bila lanean hasi diren emakumeak. Gehienak amak dira eta ez dute bizitzeko diru nahikorik. Tailerrean prestakuntza profesionalaz gain lan eta emakumeen eskubideei buruzko prestakuntza ere jasotzen dute. Tailer hau Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen barruan dago.

www.ropahechaconamor.com

Beraiek kontaktuko digute zeintzuk diren Bidezko Merkataritzaren ekarpenak

Johny Joseph, Creative Handicrafts-eko zuzendaria

Emakumeen aldaketarako gauza garrantzitsuenetako bat duintasuna da. Creative-n lanean hasten direnean ez dute ezer, ez autoestimurik, ez etorkizunik ezta bizitzeko modurik ere. Erakundearen sartzean, prestakuntza jasotzen dute eta horri esker zenbait trebetasun lortzen dituzte eta gizartean zerbait izaten hasten dira. Diru-sarrerak edukitzeko eta produktuak egiteko gai esateak etorkizun bat badagoela pentsarazten die. Beren bizitza aldatu daitekeela eta ondorioz beren autoestimua hobetzen da.

Gizarte zapaltzaile batetik datozen emakumeak dira, non ez dagoen beraientzako tokirik eta lanean eta antolatzen hasten

direnean ohartzen dira gizonak bezalakoak direla eta eskubi-deak dituztela, orduan beren familietan nola tratatzen dituzten, beren alabei edo beste emakume batzuei nola tratatzen zaien zalantzan jartzen hasten dira. Honi guztiari esker, lan egiteko eta borrokatzeko gogoia areagotzen da. Laburbilduz, lortzen dena da, munduaz zuten ikuspegi desberdin bat edukitzea, berdintasuna eta gizarte-justizia egon behar duen mundu bat eta horren alde borroka egin behar duten mundu bat.

Ruth de la Cruz (CIAP, Perú)

“Bidezko Merkataritzari esker, antolatzen, elkarri laguntza eskaintzeko gai diren emakume talde bat izaten eta beren erkidegoa laguntzen ikasi dute. Hau oso garrantzitsua da beraientzat.

CIAP-en hasi nintzenetik, emakumeen indarra oso garrantzitsua zen ideiak eta iritziak emanez. Uste dut berarengandik ateratzen den jarrera bat dela eta erakunde barruan perfektionatu egiten da, hemen erakunde-gintzari, aurrekontuak maneiatzeari, autoestimuari... buruzko ezagutza jasotzen baitituzte”.

Sunil Chitrakar, Mahaguthi-ko zuzendaria⁷⁹

“Geure buruari egin behar diogun galdera da, ematen al diezu garrantzia pertsoneri? Nola zaintzen dituzu? Guk (Bidezko Merkataritzak) pertsonentzako negozioak egiten ditugu, pertsonak beti daude beste guztiaren gainetik, hori da desberdintasun handiena zalantzarik gabe. Enpresa horiek pertsonak tresna gisa tratatzen dituzte, onura ekonomikoa lortzeko, guretzako bestalde, helburu bakar eta garrantzitsuena dira. Bidezko Merkataritzan, esaten duguna egiten dugu eta duguna esaten egiten dugu. Beste erakunde batzuei ahoa betetzen zaie beren funtzionamenduari buruzko edo langileak tratatzeko duten moduari buruzko promesekin, geuk promes horiek bete egiten ditugu”. ●



Ezkerretik eskuinera, Johny Joseph, Ruth de la Cruz eta Sunil Chitrakar.

79. El Salmón Contracorriente. “El comercio justo no es sólo un gasto, es una inversión para todos”. www.elsalmoncontracorriente.es/?El-comercio-justo-no-es-solo-un

6. Bibliografia eta erreferentziak

- Banco Mundial. *Priorities for Sustainable Growth: A Strategy for Agriculture Development in Tajikistan. Technical Annex 2. Cotton Sector in the Global Context.*
- Arropa Garbia Kanpaina. www.ropalimpia.org
– “El textil y la feminización de la pobreza”. www.cleanclothes.org/resources/publications/translations/fabricado-por-mujeres.pdf
- Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea.
– *El Comercio Justo en España 2013. Diagnósticos y alternativas en clave europea.*
comerciojusto.org/publicacion/el-comercio-justo-en-espana-2013-diagnosticos-y-alternativas-en-clave-europea/
– *¿Cómo saber si un producto es justo?*
comerciojusto.org/que-es-el-comercio-justo/%C2%BFcomo-garantizo-que-un-producto-es-de-comercio-justo/
- Europako Batzordea (2010) *On Retail Services in the Internal Market. Accompanying document to the Report on Retail Market Monitoring: “Towards more efficient and fairer retail services in the Internal Market for 2020”.* Commision Staff Working Document.
- Cotton Campaign (2013). *Review of the 2013 Cotton Harvest in Uzbekistan: State Forced-Labour System Continues.*
- Creative Handicrafts. www.creativehandicrafts.org/
- *Todo menos caro* dokumentala. www.youtube.com/watch?v=cl5PY5zx84M
- *Nero's Guest* dokumentala Indiako nekazariek buruaz beste egiteari buruzkoa: <https://www.youtube.com/watch?v=4q6m5NgrCJs>
- Fairtrade Ibérica.
– www.sellocomerciojusto.org/es/productores/algodon/
– www.sellocomerciojusto.org/news/es_ES/2015/01/14/0001/45-de-los-espanoles-pagarian-mas-por-productos-que-ayudan-a-paises-en-vias-de-desarrollo
- Fairtrade International. www.fairtrade.net/fileadmin/user_upload/content/2009/resources/2013-Fairtrade-Monitoring-Scope-Benefits_web.pdf
- Fair Trade Advocacy Office. fairtrade-advocacy.org/about-fair-trade/the-fair-trade-movement
- FAO (2010). *Price surges in food markets. How should organized futures markets be regulated?* Policy Brief.
- FAO (2005). *El estado de los mercados de productos básicos agrícolas 2004*
- Galbi, Douglas A. Centre for History and Economics, King's College, Cambridge. *Child Labour and the Division of Labour in the Early English Cotton Mills.*
- Greenpeace (2005). *El tratamiento de textiles y sus repercusiones ambientales.*
- Greenpeace (2010). *¿Qué cosecha de algodón?* www.greenpeace.org/espana/es/reports/que-cosecha-de-algodon/
- Greenpeace. *Moda sin tóxicos:* www.greenpeace.org/espana/Global/espana/report/other/moda-sin-t-xicos.pdf
- Herodoto. *Historias, Libro III, 106.*
- Hildegunn Kyvik Nordås. *The Global Textile and Clothing Industry post the Agreement on Textiles and Clothing.*
- Ingeborg Wick (2009). *The social impact of the liberalised world market for textiles and clothing. Strategies of trade unions and women's organisations.* OBS-Workbook 62. A study commissioned by the Otto Brenner Foundation.
www.otto-brenner-shop.de/uploads/tx_mplightshop/AH62_en_01.pdf
- India Committee of the Netherlands (2010). *Seeds of child labour. Signs of hope. Child and Adult Labour in Cottonseed Production in India.*
- Intermón Oxfam (2004). *Moda que aprieta.* 2004. www.uv.es/ipla/archivos/articulos/0_3001_090204_Moda_que_aprieta.pdf
- International Trade Centre (ITC) 2011. *The Chinese Market for Clothing.*
- Miller, Doug. School of Design. University of Northumbria. *Towards Sustainable Labour Costing in the Global Apparel Industry: Some evidence from UK Fashion Retail.*
- Industria, Energia eta Turismo Ministerioa (2014) *Sektorekako aurkezpenak. Ehungintza eta Joskintza* <http://www.minetur.gob.es/es-ES/IndicadoresyEstadisticas/Presentaciones%20sectoriales/Textil%20y%20confecci%C3%B3n.pdf>
- Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa (2007) *El Comercio Textil en España.*
www.portaldelcomercioicl.com/publicaciones/El%20Comercio%20Textil%20en%20Espa%F1a.pdf
- Modaes.esEhungintzaren eta Jantzigintzaren Informazio Zentroaren (Cityc) eta Amicca erakundearen laguntzarekin. *Informe Económico del Negocio de la Moda en España 2014.*
- Notz, Gisela (2006). *Garapen politikarako proiekturako taldea, Nazioarteko garapenerako kooperazioaren dibisioa, Friedrich-Ebert,*

Digitale Bibliothek fundazioa. *Género en el trabajo sindical. Globalización o la feminización del trabajo, Género en el trabajo sindical: experiencias y retos.*

- OECD (2010). *Final consumption expenditure of households, Detailed National Accounts (database).*
- Lanaren Nazioarteko Erakundea (2014). *Salarios y tiempo de trabajo en los sectores de los textiles, el vestido, el cuero y el calzado.* www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_dialogue/---sector/documents/publication/wcms_300643.pdf
- OIT (2012). *Global Employment Trends 2012.*
- Munduko Merkataritza Erakundea 2014 *Estadísticas del comercio internacional 2013.* www.wto.org/spanish/res_s/statis_s/its2013_s/its13_merch_trade_product_s.pdf
- Oyangen, Knut. Iowa State University. Department of History. *The Cotton Economy Of The Old South.* rickwoten.com/CottonEconomy.html
- Oxfam Intermón. www.oxfamintermon.org/es/comercio-justo/noticia/nueva-coleccion-otono-invierno-2014-2015-de-veraluna
- Riddselius, Christopher. Fair Trade Center (2010). *Fashion Victims. A report on Sandblasting Denim.*
- Sales i Campos, Albert. Setem Catalunya (2013). *Guía para vestir sin trabajo esclavo.*
- Sales, Albert eta Piñeiro, Eloísa. Arropa Garbia Kanpaina (2011) *La moda española en Tánger. Condiciones de vida y supervivencia de las obreras.* www.ropalimpia.org/adjuntos/noticias/materiales/Moda-espanola-en-Tanger.pdf
- Sherwood, Marika. Institute of Historical Research. University of London. *Britain, slavery and the trade in enslaved Africans.* www.history.ac.uk/ihr/Focus/Slavery/articles/sherwood.html
- Setem-Arropa Garbia Kanpaina (2014). *Salarios Dignos. Nahikoa al da markek geure jantziak egiten dituzten pertsonen ordaintzen dieten diru soldata, beren bizia arriskuan jartzeko?*
- SOMO (2014). *Flawed Fabrics.*
- SOMO (2014). *Fact Sheet, Child labour in the textile & garment industry, Focus on the role of buying companies.*
- US Department of Labour (2013). *Findings on the Worst Forms of Child Labor.*
- WFTO. www.wfto.com

BALIABIDEAK

- Eldiario.es. *La moda que no se derrumba.* www.eldiario.es/economia/moda-derrumba_0_252675028.html
- El País. *Los escombros de la tragedia.* internacional.elpais.com/internacional/2013/06/14/actualidad/1371225314_748245.html
- El Periódico. *“No creo que las grandes marcas puedan ser sostenibles”.* www.elperiodico.com/es/noticias/tendencias-sostenibles/creo-que-las-grandes-marcas-puedan-ser-sostenibles-3401537
- *El Salmón Contracorriente.* *“El comercio justo no es sólo un gasto, es una inversión para todos”.* www.elsalmoncontracorriente.es/?El-comercio-justo-no-es-solo-un
- Modaes.es.
 - *Las veinte mayores empresas de moda del mundo.* www.modaes.es/back-stage/20120419/las-20-mayores-empresas-de-moda-del-mundo.html
 - *El Mapa de la Moda (I): Los grandes grupos de moda en España* www.modaes.es/back-stage/20130515/el-mapa-de-la-moda-i-los-grandes-grupos-de-moda-en-espana.html
 - *Etiopía y Sudáfrica, ¿las nuevas ‘Bangladesh’?* www.modaes.es/entorno/20140721/etiopia-y-sudafrica-las-nuevas-bangladesh.html
 - *Inditex bate en su peor año a H&M y Gap en ventas comparables (2014).* www.modaes.es/empresa/20140324/inditex-bate-en-su-peor-ano-a-hm-y-gap-en-ventas-comparables.html
- *Moves to Slow.* www.movestoslow.com/
- People Tree. www.peopletree.co.uk/
- *Phnom Penh Post* (2008). *Inflation driving women out of the factories into beer gardens.* www.phnompenhpost.com/national/inflation-driving-women-out-factories-beer-gardens

Kotoiari buruz

- Nekazari eta Abeltzain Elkarteen Koordinakundea (2012) *El algodón se la juega. Cotton put at risk.* www.coag.org/rep_ficheros_web/3d3f04eabd37e760e15af8cbdc37ff56.pdf
- Cotton Incorporated (2012). Mercado del algodón de EUA. es.cottoninc.com/MonthlyEconomicLetter_ES/
- FAO (2004). *Perspectivas a plazo medio de los productos básicos agrícolas Proyecciones al año 2010.* www.fao.org/docrep/007/y5143s/y5143s15.htm
- FAO (2005). *Los subsidios al algodón en los países ricos significan precios bajos en todo el mundo* www.fao.org/newsroom/es/focus/2005/89746/article_89759es.html

“Bidezko merkataritza elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarrituriko sistema komertzial bat da, nazioarteko merkataritzan zuzentasun handiagoa lortu nahi duena, gizartearen eta ingurumenaren inguruko irizpideetan arreta berezia jarrita. Lagungarria da garapen iraunkorrean, baldintza komertzial hobeak eskainiz eta egoera ahuleko ekoizleen eta langileen eskubideak ziurtatuz, Hegoaldean bereziki.”

Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen definizioa



Jarraiguzu:



www.facebook.com/CEComercioJusto



[@CEComercioJusto](https://twitter.com/CEComercioJusto)



www.linkedin.com/company/coordinadora-estatal-de-comercio-justo



[CEComercioJusto](https://www.youtube.com/CEComercioJusto)

Laguntzaileak:



cooperación
española

www.comerciojusto.org